

# uk

142. zenbakia / 2008 uztaiak 31





# Portu Zaharretako Jaiak 2008



Abuztua 9-12

## Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Bihotz bat Arrigunagan.
7. LEHEN ETA ORAIN. Neguriko Carmen kalea.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Jabi Artaza.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

### SAKONEAN

26. ALBUMA. Bertso Jaialdi Mundiala.
28. ARGAZKIA. Eskualdeko baserri bat.
30. BERBETAN. Harkaitz Cano, Zuberoa Iturburu.
34. FOTOGRAFIA. Algortako trinitarioak.

### KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Kimuak programa.
43. MUSIKA. Ska-reggae jaialdia Erromon. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. *Bertan Bilbo* liburua. Liburuen erreseinak.
45. KIROLAK. Getxo erugbi taldeko andrazkoak.
46. ELKARRIZKETA. Palestinako haurren begiraleak.

### AMAITZEKO

49. NON JAN. Sopelako El Sol garagardotegia.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Azkoriko landetan 1946, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Sustrai Colina.



30 Harkaitz Cano



11 Jabi Artaza

### Berbetan

Zuzenbidea ikasi zuen baina abokatutik gutxi dauka Harkaitz Canok. Ahots propioa lortu du euskal literaturan.



46 Elsa Pamparacuatro



14 Algortako trinitarioak



26 Jon Loizaga



54 Sustrai Colina



## UDA BEREZIA '08 LEIOA BERRI-N

Gure autokarabana erakusketa berria bisita ezazu

**RENAULT LEIOA BERRI** Iparragirre etorbidea 94, LEIOA. Tel: 94 480 46 02  
[www.renaultleioa.com](http://www.renaultleioa.com)



## UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Maitane Nerekan,  
Zuberoa Iturburu

FOTOGRAFIA: Asier Menbaca

TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia

KOLABORATZAILEAK: Bittor Egurola,  
Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itsaso Arana,  
Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra  
Lepoan Euskara Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko  
herri aldizkari eta euskara elkarten  
Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



# gugeu

## Irailera arte!

Hori ba, UKko opor aurreko azken zenbakia duzue hauxe. Ohi legez, aldizkari honek abuztuaren pertsiara itxita edukiko du, eta aldizkariak bada... batzuk urrun doaz oporretan, beste batzuk hurbilago, baten batek "marijai" goitizena bere gain hartuko duela egin dute apustu eta badira beste kontu batzuetan beharrezko izerdia botako dutenak ere.

Bestalde, ez da urte amaiera, baina udako oporrak baino lehenago ere egindakoaren balantzea egiten dugu sarritan: batzuetan gustura, goxo-goxo ibili gara, bestetan arrastaka heldu ezinik... Zenbaki batzuk eskuetan hartzean egindakoagaz konforme geratu gara eta gainontzekoetan hobeto egin genezakeen usteagaz lotzen gara. Ostera, ezingo digute aurpegiatu lanik egin ez dugunik, urte hasieratik hona hamabi UK plazaratu ditugu...

Eta zer arraio! oporrak merezi ditugula...

Hala, iraila bitartean egin dezagun alkarregaz topa!

UK-ko lantaldea

egon ginen > Bapirukeko jaiak



Primeran pasatu zuten Bapirukeko umeek Erromoko Santa Eugenia eskolan ospatu zuten II. txandako amaiera jaiak. Afrikako perkusionistak, Euskal Herriko txalapartariak eta Peruko ipuin kontalariak izan ziren haiekin, beste askoren artean. Gainera, euren prestatutako dantzak eta abestiak guztion aurrean egiteko aukera izan zuten. Bizarra Lepoan Euskara Elkartek antolatutako udaleku irekia da Bapiruke eta aurten 200 ume baino gehiagok hartu du parte.


uk

gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Urbe Kostako Aldizkaria

[irudia]



**Bihotzarentzako arteria eta zainak** / Uztailaren 12an Bihotz Handi Getxoko odol-emaleen

elkartek deituta giza bihotz gorri handi bat egin zuten Arrigunagako hondartzan. Ekimenaren helburua edo zergatia odol eskea izan zen, gizakion gaitzak sendatzeko edota ebakuntzei aurre egiteko behar-beharrezkoa dugulako giza odola, eta Getxoko elkartetik behin eta berriz adierazten dutenez, gurean odol gutxi ematen da, odol-emale gutxi daude. Hasieran esaten genuen legez, bihotz horrek arteria eta zain gehiago behar ditu! ○ / Argazkia: **Rafa Batarrita**



# Ipini zure oporrak **EUSKARAZ**

## **UDAK** **ORDUTEGIA**

**GOIZEZ:**  
10etatik 14etara  
**ARRATSALDEZ:**  
16etatik 18etara



## **UDAK** **ORDUTEGIA**

**ORDUTEGI**  
**JARRAIA:**  
9etatik 15etara



## **NEGUK** **ORDUTEGIA**

**GOIZEZ:**  
10etatik 14etara  
**ARRATSALDEZ:**  
16etatik 20etara



## **NEGUK** **ORDUTEGIA**

**ORDUTEGI**  
**JARRAIA:**  
9etatik 15etara



**GETXOKO EUSKARA ZERBITZUA**  
Urgull kalea 4, 1. solairua GETXO  
Tel: 94 466 00 10



[lehen]



GETXOKO UDAL LEBURUTEGIA

[orain]



ASERMENTIXAKA

**Iraganez doa denbora\* beti / NEGURIKO CARMEN ELIZA 1900-2008**

\* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



## uribitakora &gt; nor naiz?



Algortako Bihotz Alai plaza, 2008ko uztailaren 16a

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

\* Doinua: Eskale bat zen itsu

Txanpon orok bi alde  
izaten du beti,  
Maialen txanpon baten  
alde bat izaki,  
hain apal eta umil,  
horrexen lotsati,  
ona dirudi baina  
gaiztotzen badaki.

Bertsolaritzak badu  
posesio grina,  
gai-jartzaileak hitzez  
nahiz ez eman mina.  
Gaia da barrenera  
sartzen den arima  
eta bertsolarien  
gorputza, biktima.

Berdin dira txakur zein  
Sin chanen senarra,  
euriborra, Josu Jon,  
Casillas, makarra...  
Hainbeste nortasunez  
pertsone bakarra,  
normala exorzismo  
batzuen beharra.

## spraikada &gt; graffiti jaialdiaren V. edizioa egin zuten Erandion



Goian, sari banaketa; behean, Erandion egindako lan bi

**Kale artistak** dira graffiteroak. Edozein horma zikin hartu eta sprai pote batzuen laguntzaz margolari onenen mailako artelanak sortzen dituzte. Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak Euskal Herriko graffiti lehiaketa antolatzen hasi zen orain dela bost urte. Aurten, Erandion ospatu zuten, uztailaren 19an, Berbots euskara elkartearen laguntzarekin. Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako lagunek parte hartu zuten; denak euskaldunak, artistak eta gazteak. Guztira 21 zirriborro aurkeztu ziren Spraikada 08ra eta epaimahaiak horietatik hamar aukeratu zituen Erandioko finalerako. Finalisten artean, "Yubia" berangoko bizilaguna egon zen, *Mundua bete kolorez* lanarekin. 500 litro pintura, 1100 sprai pote eta 1000 aho-tutu erabili zituzten graffiteroek euren lanetarako. Gainera, scratch eta DJ tailerrak egon ziren. 2008ko edizioan, beste urrats bat eman dute Topagunekoek eta Spraikada.com webgunea jarri dute martxan, Euskal Herriko graffitigintzan egiten den lana zabaltzeko euskarria. ○




## BASALBO BASERRIA JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO  
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

## saiaz getaria HOTELA

Roke Deuna 25  
280808  
Getaria  
Gipuzkoa



..haria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143



[talaia]

## getxo > herriko irudiak dituzten eskumuturrekoak Iñaki bitxidendan



**Zaila** egiten zaigu askotan urrunetik bisitan datorren lagun edo senide horrentzako berezia izango den oparia aukeratzea. Betiko “souvenir”-ekin nazkatuta gaude eta gehienetan ez dute gure herriaren izaera ondo islatzen. Ideia honetatik abiatuta, Getxoko irudiak dituzten eskumuturrekoak sortzea erabaki zuten Algortako Iñaki bitxidendako lagunek. Kolorezko sokez eta zilarrez eginda daude eta, besteak beste, Galeako Forteko, Aixerrrotako eta Portu Zaharreko irudiak dituzte. Eskumuturrekoarekin batera, aukeratutako sei irudien historia azaltzen duen koadernotxo banatzen dute, opari ederra eramateaz gain, txoko berezi horiek ondo ezagutzen laguntzeko. Uztaila hasieran jarri ziren salgai Villamonteko eta Telletxeko dendetan eta, dagoeneko, jende asko hurbildu da galdezka. Hainbat kolore eta neurritan eskura daitezke emakumeentzako zein gizonentzako modelook. ○

Villamonte eta Telletxeko Iñaki bitxidendetan eskura daitezke eskumuturrekoak

## erandio > II. argazki lehiaketa antolatu du Kultura Sailak



**Irailaren 19a arte** egongo da zabalik Erandioko II. Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea. Edozein pertsonak har dezake parte eta gehienez hiru argazki aurkez daitezke, zuri-beltzean zein koloretan. Aurkeztutako lanak originalak eta lehenago saritu gabeak izango dira. Ez da onartuko bere edukia aldatzeko manipulaturako argazkirik. Lan bakoitzarekin batera gutun-azal itxia aurkeztuko da eta horren barruan parte hartzaileen izen-deiturak, telefono zenbakia, argazkien izenburua, obraren azalpena eta beste zenbait datu sartu behar dira. Erandioko landa-eremuko bizimoduaren eta lanbide tradizionalen ondareari buruzkoak izan behar dira argazkiak eta bereziki interesgarritzat joko dituzte nekazaritza eta abeltzaintza jarduerekin, urarekin, lanbideekin eta jaiekin zerikusia dutenak. ○

Juan Gomez argazkilariaren lan bat



[erretratua]

“Herriarrek asko eskertu zidaten jaietan alde batetik bestera, ekintza guztietan parte hartzen ibiltzea”

## Jabi Artaza > 2007ko Antolin Deuna jaietako Antolintxu

**Leioako** jaietako Mari Pepa eta Arlote ekarri genituen Erretratura 140. alean. Oraingoan, Plentziako jaietako Antolintxu ezaguna dakarkizuegu edo, hobe esanda, 2007ko jaietan bizia eman zion Javier Artaza. Plentziar osoa denez gero, ondo hartu zuen Antolintxu izateko proposamena: “Lan kontuak begiratu eta emazteari ondo iruditzen zitzaion galdetu nion, badaezpada; egun osoan parrandan ibiliko nintzela banekien, horregatik hobe aurretik galdetzea”. Kultura zinegotzia izandakoa da Artaza; baina horregatik baino, herriko salta guztietan ibiltzeagatik eta Plentziaren defendatzaile sutsua izateagatik da ezaguna: “Nire herria izateaz gain, oso herri lasaia eta ederra da”. 2007ko jaietan bere lehengusina izan zuen bikote, Madalontxuren paperean: “Jendeak tongoa zegoela esaten zidan, baina kasualitate hutsa izan zen; nik ez nuen bera bozkatu”. Jaietako protagonista izatea lan neketsua izan zela onartzen duen arren, herritarren berotasunak asko lagundu zion: “Egun osoan abarkak eta alkandora jantzita hemendik hara ibili nintzen, ordulariaren menpe; hala ere, gustura egon nintzen, jendeak asko eskertu zidan ekitaldietan egotea eta euren maitasunak aurrera egiteko indarra eman zidan”. Aurtengo Antolintxu eta Madalontxurentzat gomendio bat: “Ilusioz har dezatela lana”. Gora Antolin Deunako jaiak! ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

**cianoplan Reprografia**  
global printers

Imprimatze eta plano kopiak •  
Kartelak kolorez eta z/b •  
Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •  
Fotokopiak kolorez eta z/b •  
Era desberdinetako koadernaketak •  
Plastifikazioak •  
Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •  
enmarkaketak •

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antigua Golf - Getxo  
Tf. 944 649 087  
944 648 691  
<http://www.cianoplan.es>





## II. GetxoPhoto nazioarteko jaialdia

Irailaren 11tik urriaren 12ra bitartean **Getxo** argazkiz jantziko duen jaialdian **20tik gora nazioarteko argazkilariren lanak** gozagai

**Oporretatik bueltan egingo da Getxophoto nazioarteko jaialdia, eta argazkigintza eta argazkilaritza ekitaldi berezi honen egitarau-aurreapenaren berri non izango duzue UKn ez bada?**

**UKko** kide batzuen jakinmin eta zaletasunetik jaio zen egitasmoak eta Begihandi elkarrekin sustrai sendoak erroto zituzten iaz. Hasierako izpirituari leial jarraituz, "Ohikoak baztertu barik, Getxophotok ezohiko erakusteko leku eta euskarriak esploratzearen alde egin nahi du... Etxaurretatik denden erakusleibotana, plazak, parkeak edota enaikenak bitartean hartuz, Getxo erakusketa gune bizi bihurtu nahi dugu, non bisitariak eta herritarrek ibiltzen argazkilaritzaz goza dezaketek", hau da, herritarren gozamenerako gune publikoan eta argazkilaritzaren hartu-emanan bultzatzea dute helburu. Eta aurtengoan hazteko asmoagaz ekin diote bigarren ekitaldiari: iazko gunez gainera (San Nikolas, laster botako duten Getxo Antzokia, Punta Begoña, Portu Zaharra eta Ereagako igogailua) beste lekuean ere ipiniko dituzte argazkiak: Areta eta Algortako metro geltokien barrualdeak, Portu Zaharreko kaia etab.

Hala, 2008ko Getxophoton erakutsiko diren 20tik gorako argazki erakusketak elkarrengaz lotuko dituen hari nagusia Mutazioak gaia da: aldaketak, gaur egungo gizartearen bilakaerak, nortasunaren eraldatzeak, paisaiaren itxuraldaketak, kultur aldaerak... jasotzen dituzten argazki-lanak ikusi ahalko dira. Aurten ere Alejandro Castellote izango da jaialdiko komisarioa, eta mutazioen berri begi propioz emango diguten argazkilarien artean daude: Ananke Asseff, Esteban Pastorino, Marcos Lopez (Argentina), Dionisio



Goian, Sammy Balojiren erakusketako argazki bat. Azpian, Fernando Maquieiraren lanaren irudi bat

Gonzalez, Daniel Canogar, Fernando Maquieira, Pere Formiguera, Cecilia Paredes (Peru), Sammy Baloji (Kongo), Julio Bittencourt (Brasil), Osama Esid (Siria), Jose Ignacio Lobo Altuna (EH), Gonzalo Azurmendi (EH), Zarautzeko Photomuseum-eko 50. hamarkadako argazkilaritza katalanaren erakusketa...

**«Irailaren 11tik 14ra jaialdiko ekitaldiak: bisita gidatuak, proiektzioak, Bertsophoto...»**

Erakusketak irailak 11-urriak 12 bitartera egongo dira ikusgai, baina irailaren 11tik 14ra egingo dira argazkilaritzari lotutako ekitaldiak, berbarako: proiektzioak, bisita gidatuak, Bertsophoto, karpa (argazki-liburuen salmenta, informazio gunea etab.), argazki-lehiaketa etab. ○

Informazio gehiago: [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)



**Algortarrak saninaziotan > gogotsu!**

Egitarauari begira badago non aukeratu, hautatzea izango da *gatxa!*



Iñaki Deuna jaietarako egitaraua lantzen eta osatzen duen herritar talde langilea

**Ohi legez**, jaien egitarauko egun handiari leku berezia egin nahian, ondorengo errotoak berari eskainiak izango dira. Loiolako jesuita ezagunaren egunean algortarrak esnatuko dituen diana baino ordu erdi lehenago hasiko da Iñaki Deunaren 63. txirindularitza zirkuioa / Rikardo Otxoari 8. omenaldia; eguerdirako ordu bat falta denean hasiko da XII. Kantxa Kirol Moda herri krosa eta ordu erdi beranduago, Uribe Kostako eta inguruetako hainbat dantza talderen bilkura, kalejira eta erakustaldia egongo da (Baile plaza, 12:30). Meza Nagusia eta Ohorezko aurreraren ostean, bertsolarien txanda izango da

(Enanos plaza, 13:00) eta ondoren bertso bazkaria ere antolatu dute. Pala partidak 17:00etan hasiko dira eta erraldoi eta buruhandi konpartsen bilkura ordu erdi beranduago izango da (Kasune). Konpartsentzako ekitaldiz beteriako arratsaldearen ostean, Bailongo taldea

**«San Inazio eguna ere, hilak 31, ekitaldiz beteta»**

ren erromeriak (Enanos plaza, 23:00) eta NoDrama, Deabruak Teilatuetan eta Su ta Garren kontzertuek (Baile plaza, 22:30) emango diete amaiera egunari. ○

Oharra: azken orduko aldaketak egon litezke.

san inazio  
autoeskola  
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP  
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
ALGORTA

Garaizar  
berrikuntzak

- igeltzeritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
Ileta kalea 1 • ALGORTA

### Ekitaldi batzuk

- **Uztailak 29, martitzena:**
  - Pregoi eta txupina (Baile plaza; 18:30)
  - Sardina jana (Jaio Berria taberna, Salem taberna ohia; hilak 29, 31 eta abuztuak 1-2; 20:00).
  - Jota eta Arin-Arin txapelketa (Tilo plaza; 20:30) eta Larrain dantza (hilak 29, 31 eta abuztuak 1; Geltoki plaza, 20:30).
  - Bertsolariak (Enanos plaza; hilak 29 20:30; hilaren 30ean eta 31n eta abuztuaren 1ean 13:00).
  - Haur zinea (Tilo plaza; hilak 29, 31 eta abuztuak 1, 22:00).
  - Oihergi taldea (Enanos plaza; 23:00).
  - Kontzertuak: Atomic Disaster, UEK eta Des-Control (Baile plaza, 23:00).
- **Uztailak 30, eguaztena:**
  - Saskibaloia eta futbito txapelketa (Batzokia; 09:30)
  - Urmeen jolasak (Geltoki plaza, 11:00).
  - Gazte Egunaren barruan gazteentzako ekimenak: tortilla eta sokatira txapelketak, parillada... (egunean zehar; Baile plaza, 12:00).
  - Igel eta tiragoma txapelketa (Getxo Antzokia, 12:00)
  - Saninazioetako jaitsiera tradizionala ("Cuatrocaminos"-tik Ereagara, 19:00).
  - Su artifizialak (hilak 30-31; 23:00)
  - Kontzertuak: DAR (Dale ke aun respira) eta Potato (Baile, 24:00).
- **Abuztuak 1, barikua:**
  - Urme-jolasak (Getxo Antzokia, 10:00)
  - Sahara eta Palestina herriekiko elkartasun ekitaldia (Geltoki plaza, 12:00)
  - Nagusientzako dantzaldia Trio Menta taldeagaz (Biotz Alai, 13:00)
  - Elkartasun bazkaria (Baile, 15:00)
  - Urmeen jaitsiera (Baile, 17:30)
  - IX Trititixa erakustaldia (Tilo, 20:00).
  - Kontzertuak: Usain Anaiak (Enanos, 23:00); Entida Arrinkonados, Elvisavuelo eta DJ Bull (Baile, 23:00).
- **Abuztuak 2, zapatua:**
  - Txapiro lehiaketa (8:30-13:30).
  - III. Iñaki Deunaren esku pilota txapelketako finalak (Batzokia, 11:00)
  - Profesionalen esku pilota partida (17:30); (pala partidak hilak 31; 17:00)
  - Bizkaiko Aizkolarien irekia (Geltoki plaza; 17:30)
  - Estropadak (Portu Zaharra, 19:00)
  - Eneko Caballero futbito txapelketako finalak (Batzokia, 19:00).
  - Ile-apaingintza showa (Zabala, 20:00)
  - Erromeria, Gaubela (Baile, 23:00).

\*San Inazio eguneko egitaraua testu nagusian.  
\*Baile plaza esaten denean San Nikolas plaza esan nahi da, eta Enanos esaten denean, Kasinokoa.



## Ekitaldi batzuk

- **Uztailak 29, martitzena:**
  - Erromo eta Pinuetako historia eta argazki erakusketa (Erakusketa Aretoa; uztailak 29-abuztuak 2).
  - Aurre-txupina (Cervantes, 12:00)
  - Koadrilen bazkaria (Cervantes, 14:30)
  - Herri Olinpiadak (Cervantes, 16:45)
  - Goitibeheren kalejira / igoera (19:30)
  - Gaubela taldea (Cervantes, 23:30)
- **Uztailak 30, eguaztena:**
  - Igel txapelketa (ernakumezkoak Nagusien Etxea; 10:30).
  - Umeen jolasak (Gobelaurre parkea, 11:30-14:30 eta 17:30-20:30)
  - Pregoia, Txupina (Kolas plaza, 19:30)
  - Dantza erakustaldia (Txosnagunea, 20:30)
  - Haur zinea euskaraz (Texas, 22:30)
  - El Estatuto eta Doctor Deseo (Txosnagunea, 23:00)
- **Uztailak 31, eguena:**
  - Petanka txapelketa (gizonezkoak; Nagusien Etxea; 11:00).
  - Kukubiltxoren antzezlan (17:30)
  - Herri Krosa (Sta Eugenia 23, 19:30)
  - Circo imprevisto kale-antzerkia (Cervantes, 21:00)
  - Eskualdeko gazte amateurren film laburrak (Sta Eugenia 23, 22:00)
  - Kontzertuak: Obrint Pas, Arritmia eta Bapo Morgan (Txosnagunea, 23:00)
- **Abuztuak 1, barikua**
  - I. Xake Txapelketa (Gobela, 10:00; abuztuak 1-3).
  - Otxoteak (hilak 1-2; 12:00)
  - Umeentzako mozorro lehiaketa (Gobelaurre parkea, 19:30)
  - Harpa-ahots kontzertua (Eliza, 20:00)
  - Los Txikis (Ganeta, 20:30).
  - Amaiur, erromeria (Txosnak, 23:55).
- **Abuztuak 2, zapatua:**
  - Aerobik (Txosnagunea, 13:00)
  - Mus txapelketa (Larramendi, 16:00)
  - Bertso-jira: Arzallu-Kolina (20:00)
  - Herri Kirolak (Cervantes, 20:00)
  - Talde berrien kontzertuak: Dar-Identidad Oculta, Atadxs a nada eta Extorsion (Sta Eugenia 23, 21:00)
  - Basajaun, erromeria (Ganeta, 23:00)
- **Abuztuak 3, domeka:**
  - Nekazal azoka (10:30)
  - Tortilla txapelketa (Erromo ikastetxea, 12:00)
  - Dantza erakustaldia (Erromo ikastetxea, 17:30)
  - Futbol txapelketaren finala (20:00)
  - Boleros cuatro (Txosnagunea, 20:00)
  - Markeliñeren antzezlan (Erromo ikastetxea, 00:00)

## Erromokoak ere jaietan > egin aukera!

Erromo/Pinuetako festen egitaraua ere ezin daiteke bazter



Erromo eta Pinuetako herritarrentzat urtero jaiak antolatzen dituzten batzordekide nekaezinak

**Uztailaren 29tik** abuztuaren 3ra bitartean, Erromon edota Pinuetan, ez da egongo ez lo ezta lo kuluxka botatzerik ere, Jai Batzorde burutsuak prestatutako ekitaldien egitarauak ia arnas hartzeko denborarik ere ez duelako utziko. Egun bakoitzari ipini dioten izenaren harira, horrela banatuko dira jaietako goizaldetik egunsentirakoak: lehenengo eguna (hilak 29) Egun Herrikoa izango da; bigarrena (hilak 30) Txupin Eguna, hirugarrena (hilak 31) Kirol Eguna, ondorengo (abuztuak 1) Koadrila Eguna, azkenaurkekoa (abuztuak 2) Umeen Eguna eta jaietako azkeneko eguna (abuztuak

3) Tortilla Eguna izendatu dute.

Bestalde, urtero daukan erakargarritasunagatik eta aspalditik musikazale andanaren arreta deitzen duelako, ezin aipatu barik utzi

### «Ska-Reggae jaialdia abuztuaren 2an, zapatua, egingo da txosnagunean»

Ska-Reggae jaialdia, aurten XI. ekitaldia beteko duena; abuztuaren 2an, zapatuan, egingo da eta 21:30erako ipini dute zita. (Jaialdiaren berri sakonago Musika 43. orrialdean). ○

Oharra: azken orduko aldaketak egon litezke

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78  
T.: 94 491 27 34

## Portu Zaharrean > eutsi jai-sokari!

Algortakoen eta Erromokoen ostea alaitzeko zer hobe kresal usaina baino?



Portu Zaharreko jaien batzordekide nekaezinak

**Betikotasunaren** eta benetakotasunaren xarma dute Portu Zaharreko jaiak, antzinakoen kresala eta gaurkoen olatua... arrantzale jantzia atzokoen eta gaurkoen zubi... pijama erantsi barik parranda egin daitekeen topagunea... itsasoak maitasuna kulunkatzen duen elkargunea... Eguzki eta Ilargi amandreak elkarri mosu ematera iristen diren aldia...

Ostera, hori guztia baino askoz gehiago dira Portu Zaharreko jaiak, baina azaltzeko berbak laburregi lotzen zaizkigun kontuak dira eta benetan ezagutu eta bizi gura dituenak bertara hurbildu beharko du, abuztuaren

9tik 12ra du horretarako zita, hitzordurik ezin ipini, egun eta gauz egongo dira-eta ekitaldiak. Haur, gazte eta nagusientzako ekimenak, betiko legez *mimoz* prestatu dituzte

### «Antzarak, sokamuturra, kukaña, marmitako lehiaketa, zinea...»

jai batzordeko kideek. Hala, Algortako eta Erromoko jaietan ibili ostean, biharamunari uko eginez, denontzako zita dira Portu Zaharreko jaiak. ○

Oharra: azken orduko aldaketak egon litezke

## Ekitaldi batzuk

- **Abuztuak 9, zapatua:**
  - Jai hasierako txupina (12:00)
  - Munduko jolasak haurrentzat (12:00-14:30 / 17:30-20:30)
  - Beteranoen estropadak (11:45)
  - Haur karaokea (plaza, 13:00)
  - Koadrila jaitsiera (María Kristina 18:00)
  - Sardinajana (Plaza; hilak 9-11; 19:30)
  - Pregoia irakurketa (19:30)
  - Haurrentzako zinea (Doc. Pedro Bilbao plaza; hilak 9-12; 21:30).
  - Kontzertua: Erdizka laueta (23:30).
- **Abuztuak 10, domeka:**
  - Buruhandiak (11:30).
  - Haurrentzako jolasak eta hankapalu lantegia (11:30-14:30 / 17:30-20:30)
  - Kukaña eta salto txapelketa (12:30)
  - Tiragoma eta igel txapelketa (13:00)
  - Sokamuturra (17:00).
  - Kantu-poteoa (20:00).
  - Kontzertuak: Patada en la Papada, UKbilkada, DJ Tequierocomoamigo
- **Abuztuak 11, astelehena:**
  - Haurren margo lehiaketa (11:00)
  - Munduko jolasak haurrentzat (11:30-14:30 / 17:30-20:30)
  - Portu Zaharreko nagusientzako hamaiketako (Etxetu plaza, 12:30)
  - Ginkana (12:30-14:00 / 18:30-20:00)
  - Antzarak (12:30)
  - Kontzertua: Barbis (19:00)
  - Antzerkia: *Ukelele jaunaren ikuskizuna* Malas kompanias taldea (19:00)
  - Itxas Argia dantza taldea (22:00)
  - Namalantzan Dantza taldea (23:00)
- **Abuztuak 12, martitzena:**
  - Marmitako lehiaketa (09:30-14:00)
  - Haurren arrantza txapelketa (10:30)
  - Haurrentzako jolasak eta perkusio lantegia (aparkalekua; 11:30-14:30)
  - Bertsolariak (Portu Zaharreko plaza; 17:00).
  - Dantzaldia DJ Bullegaz (18:00).
  - Kontzertua: Besterik gabe (22:30).
- **Abuztuak 13, eguaztena:**
  - Txo erre eta jai amaiera kaian (06:00)

**Basurto**  
Algorta S.L.  
altzariak

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



**Jon Loizaga** > zinegotzia eta alkatearen albokoa

“Pinosoloko kiroldegiagaz ez dugu etekin ekonomikorik bilatzen, etekin soziala baizik”

**Pinosoloko kirol konplexua abenduan hasiko dira eraikitzen eta 2011n zabalduko dute. Olatudun igerilekua, berriz, 2009ko urrian irekiko dute. Jon Loizaga zinegotziak eman digu zehaztasun gehiago.**

—Kirol konplexua egingo duzue Pinosolon.

—Bai, Sakoneta kiroldegia nahiko zaharkitua geratu da eta urteak daramatzagu kiroldegi berria egiteko asmoz. Lurrak lortu ditugu Pinosolon, ia 30.000 metro koadroko partzela. Herriaren beharrak nahiko definituta genituen kiroldegi berriaren inguruan.

—Zer edukiko du?

—Estalitako aldean igerileku olinpikoa eta txikiago bat izango ditu, 600 metro koadroko spa, frontoia eta fitness instalazioak. Kanpoaldean, tenis zein padel pistak, *jogging* zirkuitua eta haurrentzako igerilekua egongo dira. 66 milioi euro inbertituko dira.

—Olatudun igerilekua ere izango du.

—Egitasmoaren puntu gorena izango da. Hamar milioi euro inbertituko ditu Aldundiak, berak ordainduko du dena. Bi igerileku dira, bata ikasteko eta bestea hodiuna.

—Leioako ingurua hondartzaz beteta dago eta surfa asko praktikatzeko bertan. Beraz, zergatik olatudun igerilekua?



Argazkian, Jon Loizaga

—Bai, jende askok galdetzen du hori. Txirindularitzagaz aldera liteke. Eguraldi ona dagoenean, kalean praktikatzeko dute, baina, bestalde, jende askok *spinning* praktikatzeko du. Antzeko zerbait da hau, baina kirola modu gogorrean egin beharrean, aisialdia da. Ez da surfa, olatudun igerilekua baizik. Beste gauza bat da, ezin da surfagaz alderatu. Publikoa izango da, kiroldegi osoa legez. Garrantzitsua izango da eta Leioako zein Bizkaiko gazteek urte osoan jarduteko

aukera izango dute. Prezioak onak izango dira, ez dugu etekin ekonomikorik bilatzen, etekin soziala baizik.

—Sakonetak kiroldegiak martxan jarraituko du?

—Ez, Leioaren erdiguneak kirol-instalazio bakarretako neurria du. Bidegorrien bitartez komunikatuko dugu eta agian autobus linearen bat berri beharko da, auzoakaz komunikatzeko. Baina printzipioz, Sakoneta desagertuko da kirol instalazio legez. ○

## San Bartolomeko jaiak

Abuztuak 21-24 bitartean **dantzak, koadrilak eta txapelketak** izango dira protagonistak



Lanetan egon arren, jaietarako libratuko dute plaza

**Hilabetea** bukatu aurretik ospatuko dituzte jaiak San Bartolome auzoan. Abuztuaren 21ean hasi, eguna, eta 24ra arte luzatuko dira, domeka. Txupina jaurtikiko dute 21ean eta koadrilen mozorro desfilea egingo dute ondoren, Guretzat fanfarreak girotuta. Sardinak dastatzeko aukera izango da afalduan eta, gauean, dantzaldia egingo dute Lisker taldeagaz. Atsedendian jokatu da koadrilen arteko proba, gauero legez.

Barikuan umeentzako tailerrak presatu dituzte. Mus eta briska txapelketak ere jokatu dituzte egun horretan, baita

tortilla txapelketa ere; 20:30etik aurrera izango da azken hori. Eguneko dantzaldia Gaubelaren eskutik iritsiko da. Zapatuan izango dira nekazal azoka eta euskal jantzi txapelketa. Gainera, artzain txakuraren lehiaketa eta idi probak jokatu dituzte eta Egan taldeak berotuko du gaua.

Azken egunez, domekaz, marmitako lehiaketa ezaguna egingo dute, beste behin ere. Sariak 20:00etan banatuko dituzte eta malkoentzako tarterik izan ez dadin, jarraian hasiko da erromeria, Beste Bat taldeagaz. Zer gehiago behar da ba? ○

### UDAN LAPURRETAK EKIDITEKO GIDA ATERA DU UDALAK

Udako oporretan zehar etxean lapurretak saihesteko gida banatu du Udaletxeak leioaztarren artean. Lapurretak ekiditeko hainbat aholku eta jarraibide ematen dira gidan. Izan ere eta datuen arabera, etxeetako lapurketen %40 udako oporraldian jasotzen dira, bizilagunak oporretan daudela. Norbaitek, noizbehinka leihoak zabaldu eta itxi, pertsianak igo eta jaitsi ditzan eta gutunak jaso ditzan gomendatzen du gidak.

### BIZKAIKO AURRESKU TXAPELKETA ETA MAKAILAO LEHIAKETA ONDIZKO JAIETAN

Irailaren 5etik 14ra bitartean ospatuko dituzte Ondizko jaiak. Bi zita nagusiak izango dira Bizkaiko Aurresku Txapelketa, hilaren 7an, eta Bizkaitar Erara Makailao lehiaketa, hilaren 14an. Aurresku txapelketa bi maila egongo dira, gazteena eta nagusia eta Leioako aurrekulari onenari ere emango diote saria. Makailao txapelketa, berriz, lehenengo 30 sailkatuek jasoko dute garaikurra eta, lehen hamarrei, dirua ere emango diete. Bestalde, Traveling Brothers, Triki Trake, Koma, Basaki eta Jo Ta Hanka taldeek eskainiko dituzte kontzertuak.

### UDONDOKO JAIK IRAILAREN 10ETIK 13RA

Irailaren 10ean hasiko dira Udondoko jaiak. Los Txikis taldeak bilbainadak abestuko ditu egun horretan. Barikuan, berriz, hilaren 12an, umeentzako jolasak, dantza emanaldia eta txokolatada egingo dituzte eta gauean, Esne Beltza eta Luhartz taldeek joko dute. Zapatuan nekazal azoka, Kuko Truko eta Bolenwaider pailazoak, triki poteoa, herri bazkaria eta arrantza txapelketa egongo dira eta erromeria Unsain anaiakaz.

**udondo**  
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

**ERROTULOAK**



ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etorb. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tif: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)



## VI. Erandio Musikalean

# Astrabuduko kaleak euskal musikaz bustiko dituzte abuztuaren 9an, Musikalean

Erandio Musikalean jaialdia egingo dute abuztuaren 9an, zapatua, seigarren urtez. Kalea jarduteko espazio gisa hartzen dute jaialdi honetan, Astrabuduko kaleak musikaz betez. Euskal kulturaz busti gura dute auzoa, San Lorentzo jaietako zapatua dela baliatuz. Trabudu Dantzari Taldeak antolatu ohi du Musikalean, Jai Batzordearen laguntzaz.

Egun osoko egitaraua prestatu dute Erandio Musikalean jaialdiaren seigarren ediziorako. Abuztuaren 9an ospatuko dute Astrabuduan, San Lorentzo jaietako zapatuan, betiko legez. Aurten ere Trabudu Dantzari Taldea dabil jaialdia antolatzen, urtero legez, Jai Batzordearen laguntzaz.

Musika kalera atera gura dute, izenak berak dioen legez. Hau da, kaleak jarduteko espazio gisa erabiliko dituzte jaialdian. Bertako musika izan ohi da gainera, euskalduna. "Auzoa euskal musika eta kulturagaz busti gura dugu egun horretan", Trabudu Dantzari Taldek azaldu dutenez.

Era berean, auzotarrek ere parte hartzea gura dute. Hau da, musika tresnaren bat jotzen duten auzotarrei leku egin gura diete; hortik sortu zen jaialdirako ideia.



Express Brass Band taldea, aurreko edizio batean

Jaiak izanik, lotsa kendu eta auzoko musikariek jo dezaten antolatzen dute. Aurten opari txiki bat egingo diete animatzen direnei, izan ere, zaila da hori lortzea. Jendea lotsa handia ematen dio kalean aritzeak eta, gehienetan, musika taldeak kontratatzen dituzte.

Aurten, besteren artean, trikitixa joko dute Ahaire taldeak eta Roberto Etxebarriaren eskolako trikitilariek.

Sestaotik iritsiko dira Zugarramurdi taldeko txalapartariak. Gainera, albokariak eta txistulariek ere girotuko dituzte Astrabuduako kaleak, zarpantzarren laguntzaz. Horiak denak arituko dira arratsaldean, baina jaiak goizeko hamaiketant hasiko da, haurrentzako tailerrakaz. Goloka antzerki taldea eta erraldoi zein buruhandiak ibiliko da kalez kale, gaitero eta txistulariak batera. o

# Astrabuduko jaiak

ospatuko dituzte **abuztuaren 6tik 10era**, txapelketen eta koadrilen arteko olinpiaden artean



Abuztuaren 9an egingo da marmitako lehiaketa

**Koadrilen** olinpiaden lehenengo probagaz ekingo diete Astrabuduan San Lorentzo jaiak, abuztuaren 6an; 19:30ean abiatuko dute jaitsiera Axpurutik. Ordu bete beranduago, berriz, txosnak zabalduko dituzte. Lehenengo gau horretan Akerbeltz taldeak eskainiko du erromeria eta txixtarrilloa ere egingo dute, jaietako gainontzeko egunetan legez.

Hurrengo eguna, eguena, tortilla txapelketaren eguna izango da. Mus txapelketa ere abiatuko dute eta gauean Zodiacs eta Dikers taldeek emango dute kontzertua. Barikuan jokatuko dituzte mus txapelketa-

ko finala eta koadrilen arteko olindiadetako sariak banatuko dituzte. Barikuan bertan eskainiko du emankizuna Golden Apple Quartet taldeak, 23:30ean eta Josu Murueta plazan.

Larunbatean jokatuko da marmitako lehiaketa, Los txikis taldeak bilbainadak abestuko ditu eta Los Polos Opuestos eta Despistas taldeek joko dute gaueko kontzertuan. Igandean, azken egunean, sukalki lehiaketaren txanda izango da eta su artifizialakaz bukatuko dituzte jaiak. Gainera, egunero ibiliko dira fanfarreak eta txistulariak kalea girotzen, besteak beste. o

## AGUSTIN DEUNAREN JAIK ALTZAGAN, ABUZTUAREN AMAIERAN

Eguerdian jaurtiko dute txupinazoa Altzagan, abuztuaren 27an, eguaztena. Orduetik aurrera jaiak murgilduko dira erandioztarrak, Agustin Deuna dela eta. Kuadrilek 19:00etan egingo dute jaitsiera eta gauean, diskoteka eta suzko zezena izango dira. Eguena 28an, Agustin Deunaren egunez ospatuko dituzte tortilla txapelketa eta kuadrilen arteko ginkana. Gauean Galea taldeagaz dantzaldia egingo dute. Gainera, gala afaria ere egingo dute. Makailao txapelketa, ordea, barikuan egingo dute. Gazte bazkaria, kukaña, espumaren jai, alpagata eta txapela jaurtiketa, Era dantza, batukada eta dantza latinoen lehiaketa egingo dituzte. Kontzertua emango dute gabaz Raperos de Emaus eta Hesian taldeek eta erromeria egongo da Tximeleta taldeagaz. Sexu gaua ere izango da barikukoa. Zapatuan, hilaren 30ean, putxera lehiaketa egingo dute, baita ur guda, herri bazkaria eta txikien mozorro lehiaketa ere, eta Etsaiak taldeak kontzertua emango du. Jaiak bukatzeko, berriz, domekan, dantza alardea, arrantza txapelketa, goitibera jaitsiera eta merendola egingo dituzte. Los Txikis taldeak bilbainadak abestuko ditu eta suzko zezenagaz amaituko dituzte Agustin Deunaren festak.

## ELKARTRUKE EGITASMOA IRAILAREN LEHENENGO ASTEAN

Beste tokietako gazteak egotea ahalbidetuko die Udaletxeko Elkartruke egitasmoak Erandioko hamar gazteri, irailaren 1etik 7ra. Irlandatik eta Frantziatik iritsiko dira zortzina gazte eta hainbat ekintza egingo dute alkarregaz. Besteak beste, esperientziak, ezagutzak eta ikaskuntzak trukatu, hiru herrialdeei buruzko gauza berriak ikastea, bereizketa modu guztiak ezabatzea eta berdintasuna bultzatzea, eta hizkuntzen erabilera zein ikaskuntza bultzatzea izango dituzte helburu nagusiak.

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



## Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13  
F. 94 467 42 41  
ERANDIO (Bizkaia)  
Mobila  
Asier: 629 411 838  
e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**



www.arlan.biz



## BODYBOARD III. SOPELANA PRO MUNDUKO ZIRKUITURAKO PROBA, ABUZTUAREN 21ETIK 24RA

Arrietara hondartzak hartuko du Bodyboard III. Sopelana Pro lehiaketa uda honetan. Euskal hondartzak surf eta bodyboard kirolak praktikatzeko oso aproposak direla jakina da eta, horregatik, abuztuaren 21etik 24ra bitartean jokatu dute txapelketa. Proba garrantzitsua da, parte hartzaileek Munduko Zirkuiturako puntuak eskuratuko dituzte eta. Goizeko bederatzietan hasiko da lehiaketa egunero.

## AIREKO INAUTERIA IRAILAREN 6AN

Ekimen bitxia egingo dute Sopelan irailaren 6an, bitxia eta ez oso ezaguna. Aireko inauteria egingo dute, hain zuzen ere. Egun osoan zehar izango da ikuskizuna eta eguraldiaren arabera, beti ere. Zortea alde eduki eta eguzkiak lagunduko al du?

## BABES OFIZIALEKO 29 ETXEBIZITZA BANATU DITUZTE KURTZION

Uztailaren 14an banatu zituzten Kurtzio auzoko etxebizitzak. Babes Ofizialeko 29 etxebizitza dira. Javier Madrazo Eusko Jaurlaritzako Gizarte Gaietako Sailburuak, Vicesa sustatzaileko zuzendariak eta Imanol Garai Sopelanako Alkateak banatu zituzten, horretarako prestatutako ekitaldi batean. Azalera-eskubidepean saltzeko etxeak dira eta Zaldu sektorean daude, Haizeder eta Ripa kaleetan. Vias y Construcciones enpresak egin ditu eta 83 eta 84,46 metro koadro bitarteko neurria dute. Hiru logela, bi bainugela, hornitutako sukalde, atxikitako trastelekua, garajea eta igogailua ditu. Garajeraino iristen da igogailua. 2.322.190 euro inbertitu dituzte etxebizitzotan. Bizilagunek 119.840 euro eta 128.400 euro artean erosi dituzte.

## Euskal Jaia

Nekazal azoka, txapelketak, **erromeria eta sukalkia** egingo dituzte irailaren 13an eta 14an



lazko Euskal Jaiko irudi bat

**Udari agur** esango diote sopoloztarrek Euskal Jaiagaz, irailaren 13an eta 14an. Udaletxe parean jarriko dute nekazal azoka zapatuan, goiz-goizetik. Horrez gain, goiz osoan zehar txalaparta erakusketa egingo dute eta jotzeko aukera ere edukiko dute bertaratzen direnek. Bazkaldu aurretik, 13:00etan, gazta, barazki, lore eta fruta txapelketako sariak banatuko dituzte. Jarraian, kontzertua eskainiko du Uribe-Bazterra musika bandak.

Arratsaldean iritsiko da gorputzak asintzeko unea, Patxi eta konpainiaren erromeriagaz eta dantza saioagaz.

Eta iganderako prestatu beharko, sukalki

txapelketa egingo dute eta. Fermin eta Eusebio trikitilariak alaituko dituzte lapikoak. Bitartean, margo lehiaketa ere egingo dute, Zirri-marra elkartearen laguntzaz.

Eguerdian txistu kontzertua izango da eta perkusioak eta metal boskoteek lagunduko dituzte txistulariak. Jarraian banatuko dituzte sukalki txapelketako sariak eta, haren ondoren, Bizkaiko Bigarren Aizkolari Opena jokatu dute. Txapelketaz txapelketa, goizean egindako margo lehiaketaren sariak ere banatu behar; 17:00etan izango da hori, umeentzako dantzaldiaren aurretik. Txanogorritxu Rock taldeak joko du. ○

**Elsa Pamparacuatro** > zirku jailadiaren antolatzailea

“Zirkuak aurpegi asko dauzka eta horiek denak ezagutarazten saiatuko gara”



Argazkian, Elsa Pamparacuatro

**Abuztuaren lehen egunetan zehar, 1etik 3ra, zirku jaialdia ospatuko dute Sopelan. Gutxitan goza daiteke zirkuaz kalean. Elsa Pamparacuatro sopoloztarra buru belarri dabil jaialdia antolatzen, Gloria Peonegaz batera.**

—Lehen aldiz antolatu duzue zirku jaialdia Sopelan.

—Bai, espreski zirkuari buruzko lehen jaialdia izango da Sopelan eta inguruan. Leioan Umore Azoka egiten dute eta Bilbon Kalealdia, baina jaialdi horietan dantza eta antzerkia ere sartzen dituzte. Zirkuak aurpegi asko dauzka eta horiek denak ezagutarazten saiatuko gara. Hor-taz, zirkuo diziplinak bakarrik erakutsiko ditugu.

—Nortzuk ari zarete jaialdia antolatzen? —Algortako Azulkillas zirku taldea ari da; ni antzerkitik nator eta bion artean pentasatu genuen zirkuari buruzko zerbait egitea. Gloria Peon da Azulkillaseko partaide eta biok gabiltza jaialdia antolatzen. Eurek saio bat ere eskainiko dute bertan.

—Zer ikusiko dugu jaialdian?

—Zirkuak biltzen dituen diziplina guztiak

ikusiko ditugu. Edukiko ditugu akrobaziak, pailazoak, bihurrikariak, malabareak, oreka lantzen dutenak eta, bitxiak edo aipagarrienak, aireko akrobaziak. Zaila da hori ikustea normalean, baldintza fisiko bereziak eduki behar direlako horrelakoak egiteko.

—Nongo artistek hartuko dute parte?

—Denetarik dago, euskaldunak zein atzeritarrek, baina saiatu gara erdia, behintzat, euskaldunak izan daitezten. Azulkillas algortarrak dira, Koblakari taldea Bilboko Errekalde auzokoa, Nafarroako zirku eskolakoak ere etorriko dira... Udaletxeko plazan eta Gernika plazan izango dira ikuskizunak eta kalejira ere egingo dugu.

—Jendeak zuzenean parte hartzeko aukera izango du?

—Bai, bai... Haurrentzako tailerrak ere egongo dira. Malabareak egiten, oreka lantzen, pilota handiarekin ibiltzen... gauza asko ikasteko aukera izango dute, horiek pixka bat ezagutzeko behintzat. Haiek ere jaialdian parte hartzeko prestatu ditugu tailerrak. Gainera, adin guztietako lagunek parte hartu ahal izango dute bertan, eta ez hurrek bakarrik. ○

## DIDAK hamilton IDIOMAS

### Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
info@didakhamilton.com

## 4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

## ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

**LAIKAK Taberna**

Bentaxu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94 676 03 28

## Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78  
T.: 94 491 27 34



**Jai egitaraua:**

**ABUZTUAK 2, ZAPATUA**

- Txupin eta kalejira txistulariekin (11:00)
- Adin guztietakoentzako parkea (12:00-20:00)
- I. Txirindulari Criteriuma (17:00)
- Los Cinco Bilbainos (20:00)
- Kontzertuak: EH Sukarra eta Alabrada eta Wicked taldeak (23:00)

**ABUZTUAK 3, DOMEKA**

- Umeentzako emanaldia (13:00)
- Bitsaren jaia (13:00)
- Jota erakustaldia (17:00)
- Zirko emanaldia (18:30)
- Antzatzeko emanaldia (20:30)
- Talde lokalen kontzertua (23:00)

**ABUZTUAK 4, ASTELEHENA**

- Kalejira txistulariekin (11:00)
- Meza Santua (12:00)
- Dantza emanaldia (13:00)
- Betiko haur-jolasak (17:30)
- Pilota Txapelketa (18:00)
- Idi Probak (19:00)
- Popi eta Zaratrako pailazoak (19:30)
- Berbena Egan Taldearekin (20:30)

**ABUZTUAK 5, MARTITZENA**

- Kalejira txistulariekin (11:00)
- Haur antzerkia (13:00)
- Gorritiren ikuskizuna eta txokolatada herrikoa (18:30)

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

# Santo Domingo jaiak

ospatuko dituzte berangoztarrek abuztuaren 2tik 5era, giro ezin hobean



Koadrila bat iazko bakaladan

**Ohi bezala** udako azken alean, UKko orrialde gehienak Uribe Kostako herri ezberdinetako jaien egitarauekin betetzen ditugu. Berangon ere badaukate zer ospatu eta behin Santa Ana auzoko jaiak bukatuta, Santo Domingo jaien txanda izango da. Jai batzordekoek *“ilusio handiz”* osatu dute lau egunetako egitaraua. Adin guztietako herritarrentzako erakargarria izan gura duen programa osatu dute, Berango *“elkartasunez eta pozez”* betetzeko asmoz.

Abuztuaren 2an, zapatua, goizeko 11etan hasiko dira jaiak txupina eta kalejira-ekin. Lehenengo egun horretan, ume eta

gazteentzako parkea (goming, puzgarriak...) eta Igo Txirindulari Criteriuma izango dira. Gau partean, Los Cinco Bilbainos, EH Sukarra, Alabrada eta Wicked taldeen musika entzun ahal izango da. Domekan, bitsaren jaia, jota erakustaldia eta Txapitel taldearen emanaldia izango dira ekitaldi nagusiak. Abuztuaren 4an, meza santuarekin hasiko da eguna eta ondoren idi-proben, pilota txapelketaren eta euskal dantzen artean aukeratu ahal izango da. Azken egunean, jaiak borobiltzeko, Kixka taldeak prestatutako haur antzerkia, Gorritiren zaldikoak eta txahalak eta txokolatada herrikoa. ○

**Julen Ezkurra** > musikaria

“Lanak lau zati ditu eta bakoitzak erritmo ezberdina dauka”



Julen Ezkurra, Gorliz musika-lanaren autorea

**Arabán** jaioa izan arren, denbora gehiena Gorlizen ematen du Julen Ezkurra. Herria maite du eta bertan gustura sentitzen da. Euskal Herriko Unibertsitateko abesbatza-aren sortzailea izan zen eta hau zuzentzen ibili da urteetan. Honez gain, musika irakasle eta konpositore bezala egin du behar. Azken afizio hau, konposatzearena, izan da Gorliz herriarentzat egindako musika-lana egitera eraman duena. Lirain abesbatzako lagunek proposatu zioten eta berak gustu handiz bete zuen enkargua. Baina ez du bakarrik lan egin; Jon Enbeita gernikarrak jarri dizkio bertsoak Ezkurraren doinuari: *“Letrak herriko geografia eta izaerari buruz berba egiten du. Itasoa, baserriak, marinela... mundu osoan zehar ibili dira Gorlizko marinela. Euskal Herriko kostaldea oso ederra da orokorrean; Astondoko ilunabarra, adibidez, ikaragarria da”*. Lanak lau zati ditu eta bakoitzak erritmo ezberdina dauka: *“Agumarekin hasten da, Gorlizko herriaren-*

*tzat egindako ereserkiarekin. Honetan marinelen ausardiari buruz berba egiten dugu”*. Gainontzeko hiru zatietan, Andra Mariko erromeria, Urkullu eta Fano mendixkak eta plentziarren eta gorliztarren arteko liskarrak aipatzen dira, besteak beste. Eta amaiera emateko, harrotasunez botatako *“Gora Gorliz!”* oihua.

**«Letrak Gorlizko geografia eta izaerari buruz berba egiten du»**

Lana orain dela bi urte aurkeztu zuten arren, uztailaren 12an emanaldi berezia antolatu zuten Lirain abesbatzako lagunek: *“Onartezina da maila honetako lan sinfoniko-konala aurkeztea eta Gorliztik kanpoko inor ez jabetzea. Prentsan garrantzia ematen diote Bilbon egiten den edozein tontakeriari eta honi kasurik ere ez; ez da kritikari bat ere etorri eta horrek mindu nau. Dena den, herriko jendeari asko gustatu zaio”*. ○



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

**BASTARTENA**



Ajuria  
taberna

Andrés Cortina 2  
**ALGORTA**



**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493



**VIEJO CAFE**

kopak eta  
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA



**AIXERROTA BHI**  
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86





**ANTOLIN DEUNA JAIK**

Abuztuaren 29a eta irailaren 3a bitartean Antolin Deunako Jaiak ospatuko dituzte Plentzian. Ohiturari jarraituz, gazteentzako herri bazkariarekin hasi eta Antolintxuren agurrarekin bukatuko dira jaiak. Tartean, Gaujai Zuria, Artisautza Azoka, Play Back eta mozorro lehiaketak, kale antzerkia, Nekazaritza eta Abeltzaintza Azoka eta beste hainbat ekintza egongo dira sei egunetan zehar. Musikari dagokionez, El mentón de Fogarty eta Drindots taldeen kontzertuak eta disko-festa eta fanfarreen animazioa izango dira.

**LEIHO ETA BALKOJETAKO LOREEN LEHIAKETA**

Urdulizko Udalak Leiho eta Balkoietako Loreen I. Lehiaketa antolatu du. Honekin, udalerraren barruko eraikinetako balkoiak, leihoak eta terrazak lorez eta landarez apaintzea lortu gura dute. Izena emateko epea uztailaren 30ean bukatuko bada ere, epaimahaia abuztuaren lehenengo bi asteetan hartuko du erabakia eta hilaren 13an emango ditu irabazlearen izenak. Epaimahaia ateratzen dituen argazkiekin erakusketa egingo da irailaren 1etik 13ra.

**GORLIZKO UDAKO VII. MUSIKA JAIALDIA**

Uztailaren 31n eta abuztuaren 10ean izango dira Gorlizko VII. udako musika jaialdiko azken bi kontzertuak. 31koa kantaldi lirikoak izango da eta Puccini, Verdi eta Belliniren obrak entzun ahal izango dira Tonino Cossarelli Olarra fundazioari esker.

**URDULIZ****Herriko argazkien lehiaketa martxan dago dagoeneko**

Urdulizko ohiturekin, jaiakin, arkitekturarekin eta kulturarekin zerikusia izan behar dute argazkiek

**Abenduaren 30a arte** egongo da zabalik Urdulizko Udalak eta Kultur Etxeak antolatu duten Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea. Herriko bizimoduarekin, ohiturekin, jaiakin, arkitekturarekin, kulturarekin edo beste edozein asperturekin erlazionatutako irudiak izan behar dira; izan ere, antolatzaileen helburua lehiaketaren protagonista nagusia Urdulizko herria izatea da. Lan guztiak originalak eta aurretik argitaratu gabekoak izateaz gain, hiru argazki osatuta egon behar dute. Zuri-beltzean zein koloretan

egon daitezke eta paperezko irudiarekin batera, diapositiba edo JPG artxiboa entregatu beharko da. Parte hartzen dutenen lanak 2009ko urtarrilaren 12tik 31ra erakutsiko dira Kultur Etxean. Irabazlearen izena urtarrilaren 23an ezagutaraziko da, nahiz eta sari banaketa 31n egingo den. Lau sari banatuko dira: bilduma onenari 3 sari (500, 400 eta 300 eurokoak) eta herriko egile onenari saria (200 euro). Parte hartu gura dutenek Kultur Etxean aurkitu dituzte lehiaketaren oinarriak. ○

**Uzt. 28 - Ira. 14**

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

**MUSIKA****BERANGO**

► **Santo Domingo jaiak.**  
Abuztuak 2, 20:00etan, Los Cinco Bilbainos. 23:00etan, EH Sukarra, Alamburada eta Wicked.  
Abuztuak 3, Astintzen, Non Ote eta Mantendu.

**GETXO**

► **Algortako jaiak, Baile plazan.**  
Atomic, Uek eta Des-Control, uztailak 29, 23:00etan.  
Dar eta Potato, uztailak 30, 24:00etan.  
Nodrama, Deabruak Teilatueta eta Su Ta Gar, uztailak 31, 22:30etan.  
Entidad Arrinkonados, Elvisabuelo eta Dj Bull, abuztuak 1, 23:00etan.  
Gaubela, abuztuak 2, 23:00etan.

**► Erromoko jaiak.**

Doctor Deseo eta El Estatuto. Uztailaren 30ean, 23:00etan, txosnetan.  
Obrint Pas, Arritmia eta Bapo Morgan. Uztailak 31, 23:00etan, txosnetan.  
Amaiur. Abuztuaren 1ean, 23:55ean, txosnetan.  
XI. Ska eta Reggae jaialdia: The Gramophone, Garagardo Gura, Allstars, Jim Murple Memorial eta The New York Ska-Jazz Ensemble, abuztuaren 2an, 21:30ean, txosnetan.

**► Portu Zaharreko jaiak.**

Haur karaokea plazan. Abuztuak 9, 13:00etan.  
Dj Bull. Abuztuak 12, 18:00etan.

**PLENTZIA**

► **Four Friends.**  
Abuztuak 28, 20:30etan, Astilleron.

**► Drindots.**

Irailaren 2an, 20:00etan. Antolin Deuna.



Eliades Ochoa

**► Jaialdiak****Getxo Folk irailaren 4tik 7ra izango da**

Hamahiru taldek joko dute Getxoko Nazioarteko Folk jaialdian, irailaren 4tik 7ra, Erromo eta Areetako karpetan. Erromon 19:00etan hasiko dira emanaldiak eta, Areetan, 21:30ean. Euskal Herriko eta munduko musika hurbilduko dute, besteak beste, Korrontzi, The Chieftains, Ismael Lo eta Eliades Ochoak. Kontzertuez gainera, hainbat ekimen egingo dute. Bidezko Merkaturan zenbait herrialdetako artisautza produktuak egongo dira, lbaiondo kalean. Era berean, beste kultura batzuetako gastronomia dastatzeko aukera izango da Munduko Terrazan, Erromoko Santa Eugenia plazan, Munduko Sendagileen (Euskadi) eskutik. Haurrentzako ludoteka eta tailerrak ere prestatu dituzte, Santa Eugenia plazan horiek ere.

• **Non:** Erromon eta Areetan • **Noiz:** irailaren 4tik 7ra

**LEIOA**

► **San Bartolomeko jaiak.**  
Lisker. Abuztuak 21, 00:00etan.  
Gaubela. Abuztuak 22, 00:00etan.  
Egan. Abuztuak 23, 00:00etan.  
Beste bat. Abuztuak 24, 20:30etan.

**► Udondoko jaiak.**

Esne Beltza eta Luhartz. Irailak 12.

**ANTZERKIA****BERANGO**

► **Haur antzerkia Kixka taldeagaz.**  
Abuztuaren 5ean, 13:00etan. Santo Domingo jaiak.

**PLENTZIA**

► **Trapu zaharrak.**  
Abuztuak 31, 18:00etan. Antolin Deuna.

**ZINEMA****GORLIZ****► Los Simpson.**

Uztailaren 30ean, 22:30ean, pilotalekuan.

**URDULIZ**

► **Zinea kalean, 22:00etan.**  
Abuztuak 5, 12, 19 eta 26an.

**BESTEAK****BERANGO**

► **Umeentzako emanaldia Txapitel taldearen eskutik.**  
Abuztuaren 3an, 12:00etan.  
Santo Domingo jaiak.

**► Bitsaren jaia.**

Abuztuak 3, 13:00etan.  
Santo Domingo jaiak.

**GETXO**

► **Erromoko jaiak.**  
Haurrentzako ur jolasak. Uztailak 31, 12:00etan, Kandilejas tabernan.  
Puzgarriak haurrentzat egunero, 11:30ean, Gobelaurre parkean.

**► Bertso saioak, Enanos plazan, Algortako jaiak.**

Uztailak 29, 20:30ean, Enanos plazan. Lizaso, Irazu, Mendiluze eta Iturriaga.  
Uztailak 30, 13:00etan, Elortza, Maia, Lekue eta Zubeldia.  
Uztailak 31, 13:00etan, Egaña, Xabi Paya, Martin eta Sorozabal.  
Abuztuak 1, 13:00etan, Arzalluz, Colina, Peñagarikano eta Fredi Paya.

**► Portu Zaharreko jaiak.**

Egunero, haurrentzako jolasak, ekimenak eta sokamuturra.

**PLENTZIA**

► **Gazta azoka.**  
Abuztuaren 17an, Eleiz enparantzan.

**► Gazteentzako herri bazkaria.**

Abuztuak 29, 14:00etan. Antolin Deuna.

aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: [vasa@vasa.biz](mailto:vasa@vasa.biz)



ADITUAK GARA PINTXO ETA  
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



[albuma]



## Bertso Jaialdi Mundiala

- **SINOPSIA:** Bihotz Alai plaza (Algorta), 2008ko uztailak 16, gaueko 10:00ak
- **FITXA TEKNIKOA:** Peio Unzurrunzaga (zuzendaria/gidoilaria);
- **ALBE** (ekoizlea); **ALBEWOOD** (ekoizpen-etxea)
- **JATORRIA:** Getxo, Euskal Herria.
- **IRAUPENA:** 120 minututik gora.
- **GENEROA:** Bat-bateko zine abestua.
- **FITXA ARTISTIKOA:** Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Sustrai Colina, Fredi Paia eta Xabi Paia

Argazki zuzendaria: **Asier Mentxaka**







## Andrazko baserritarrak

XX. mende hasierako argazki honetan sendia harro agertzen da etxe aurrean, baserri aurrean hobe esanda. Irudian ez da gizona korrik ageri eta zer pentsatua ematen du horrek. Ezin igarri zein den gizona korrik ez agertzearen arrazoia, zergatiak milaka izan litezke, bakoitzak aukeratu dezala berea. Guretzat behintzat matriarkatuaren irudi ederra dugu begi aurrean, garai bateko arrastoa izan litekeena.



[berbetan]

Egungo euskal idazle gazteen ordezkariatzat du askok Harkaitz Cano (Lasarte-Oria, 1975), baina bera ez da uste berekoa. Zuzenbidea ikasi zuen baina abokatutik gutxi dauka. Idazteari ekin zion gaztetan eta, dagoeneko, ipuinak, poesiak eta hainbat nobela idatzi ditu; udaberriari komiki bat kaleratu zuen eta, gainera, hainbat abestiri jarri die letra. Orain hiru urte eskuratu zuen Euskadi saria, *Belarraren ahoa* nobelagaz eta Espainiako Kritikaren saria, *Neguko zirkua* ipuin liburuagaz. Haren ustez, bokazioz baino, “eliminazioz” bukatzen omen dute idazten idazleek, eta gero asmatzen dute zergatik diren idazle.

# Harkaitz Cano

## Literaturagaz drogatuta

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **Conny Beyreuther**

—Harkaitz, zertan zabilta murgilduta azkenaldian?

—Idazle ingeles baten liburuaren itzulpena bukatzen ari naiz uneotan. *Intimitatea* izango da euskaraz. Bestela, gauza dezentetan nabil, pixka bat sakabanatutako egitasmoetan. Hasita dauzkat bizpahiru istorio luze, baina oraindik ez dakit zer izango diren, hiru nobela, nobela bakarra, saio bat eta bi nobela... Makina bat gauza ditut idatzita, baina oraindik ez dakit zehazki nora noan.

—*Piztia hotzana* komikia argitaratu zenuen udaberriari Iñaki G. Holgadoz batera. Zer moduzkoa esperientzia?

—Oso ona. Telebistarako gidoiak eginda nituen, baina komikiak beste askatasun bat ematen du. Banituen horrelako erreparoa hegazkin baten istripua idatzi nahi izan banu, telebistan oso garestia da eta. Komikian, berriz, marraztea berdina da, beste askatasun bat ematen du. Zortea izan da Holgado bezalako marrazkilaria bat topatzea. Oso esperientzia positiboa izan da eta orain bigarren albuma egiten gabilta. Lehen komikia, gainera, beste hizkuntza batzuetara itzuliko dute. Ildo polita da.

—Askotan hartu zaituzte euskal idazle gazteen belaunaldiko ordezkari nagusitzat.

Zer esan behar duzu horri buruz?

—Ez dut uste horrela denik. Momentu batean, beharbada, goiztiarra izatearen ajea izan daiteke hori. Nire adineko hainbat idazle badira, baina igual gehiago itxaron zuten argitaratzen hasteko. Hemen berehala egiten zaituzte, bataiatu eta konsagratu. Egia esan, zortea da alde batetik, argitaletxeak oso adi daudelako, orain ere horrela da. Jende gaztea batzuetan inkubadoretan bezala edukitzen dute, oso mimatuak, eta hori ondo dago. Gainera, euskal literaturak horrela jokatu behar duela uste dut, ez dago beste erarik.

### “Oraintsu makina bat gauza daukat idatzita, baina oraindik ez dakit zehazki nora noan”

Euskal argitaletxeek ezin dute utzi egunen batean idazle ona izan daitekeen norbait bibliotekari izatea, adibidez. Horrekin ere egon daitezke lotuta niri buruz esandakoak. Baina ez dut asko pentsatzen horretan. Gainera, momentu batean eman dezake bakarra dagoela, baina atzean beste asko dago eta hori ikusi da urteen buruan.


—Agian belaunaldi hori uzten, eta heltzen hasita zaude?

—Orain garbi dagoena da gu baino hamar urte gazteagoak diren idazle oso onak daudela. Belaunaldi berria dago. Badagoena da media oso jaitsita. Hau da, Bernardo Atxagaren belaunaldiko idazleek 50 urte inguru dituzte. Gazteak lirareteke beste edozein literaturatan. Hemen, ordea, muga bezalako dago. Txillardegi bezalako dekanok daude, baina nik faltan botatzen dut belaunaldi osoago bat, bueltan datozen idazleak, esperientzia handi baten ondoren ateratzen zaiena idazten dutenak. Gazteek hitz egiten da, baina, nire ustez, garrantzi-

tsua da adineko idazleak edukitzea. Zapai hori ere ez dakit ez ote den falta.

—Sasoian daude gazteak, ala?

—Ez dut uste sasoi kontua denik, kantitate kontua baizik. Gazteak askoz gehiago dira eta horrek badauka logika, euskara egon den moduan egon delako. Orain berrogei urte pentsaezina zen euskal idazle bat profesionala izatea; orain, aldiz, posible da. Horrek Txillardegiren adineko idazlerik ez





egotea ekarri du. Adin horretako idazle gutxi egon dira aktiboan, era erregular batean argitaratzen, beste literatura batzuetan egon daitezkeen bezala.

—**Baina etorkizunari begira positiboa da idazle gazte asko egotea, ezta?**

—Bai, hori berehala konponduko da, guk denok urteak bete ahala. Euskal literaturarentzat momentu polita izan daiteke hemendik eta hamabost bat urtera, baldin eta definitiboki jendeak ez badu galtzen liburu eta literatura bezalako hogeigarren mendeko gauza hain aintzineko hauetan duen interesa, ezta? Hori ere hor dago.

—**Zu zeu oso gazte hasi zinen. Lubaki Banda sortu zenuen beste kide batzukaz batera eta manifestua ere idatzi zenuen. Zer zioen?**

—Beno, animo probokatzailaz eginda zegoen. “Atzazalekin urratzen dugu idea”, zioen. Xabier Mendiguren Elizegik idatzitako artikulua bati erantzuteko atera zen. *Argian* atera zen eta “65eko uzta” edo horrelako zerbait zioen. Bere belaualdiaren ondoren idazle berriak ez zuela ikusten esatera zetorren. Guk esan genuen egon bazeudela, baina ezkutuan oraindik, lokaletan ezkutatuta, trintxeretan.

—**Oraindik ere badauka zentzurik testu horrek?**

—Beno, bere garaian zeukan zentzua. Perspektibarekin hartuta bazeukan bere logika. Gerora, konturatuta zeintzuk geunden talde horretan, ikusten da denok jarraitu dugula literaturarekin, komunikabideetan edo kultur munduan.

—**Zer dira zuretzat Auster, Maiakovski, Carver eta Bukowski idazleak?**

—Horiek dira bidean lagun izan dituzten batzuk. Esaten denean asko agertzen direla zure gustuko idazleak zure liburuetan, normala da, hori da nirekin etorri direlako. Nire konpainiaren parte dira, inguratu nauen jendea bezalakoak dira. Idazleak oso jende fundamentalista garelako ere egia da, une batean dena irakurtzen diozu idazle bati eta ondoren aparkatzen duzu. Hori oso nabarmena da Julio Cortazarrekin. Hasten zara irakurtzen hamabost urterekin eta hogeirekin jada-

nik dena irakurri diozu. Orduan, saturazio moduko batera iritsi eta beste idazle batzuk irakurtzen hasten zara. Baina badago arrisku bat, pentsatzea ikasi diozula jadanik ikasi behar zenion guztia autore horri. Oso bitxia da gero, hamar urteren buruan Cortazar berriro irakurtzen baduzu, erabat diferentea dela. Beste geruza batzuk dituela konturatzen zara. Ohitura dago autoreak hartu,

### “Euskal literaturarentzat momentu polita izan liteke hemendik eta hamabost bat urtera”

ustiatu, baztertu eta zenbait urteren buruan, beraingana itzultzeko. Kurioso da hori. Aipatu dituzun idazle horiek orain ikusten ditut aparte bezala, orain beste autore batzuekin nabil.

—**Zure lanak oihartzun handia izan du musikan eta nobeletan ere igartzen da musikarekiko lotura hori, zergatik?**

—Beti esan dut musikari frustratua naizela. Esaten dugunean “zer gara?” edo “zertara dedikatzen gara?”, askotan bilatzen dira esplikazio oso literarioak eta oso bokazionalak. Baina ez dena esaten zera da, askotan, eliminazioz bihurtzen garelako bihurtzen garen hori. Hau da, nik izan nahi nuke berez pianista, adibidez, eta saiatzen naiz ezinezkoa dela konturatu arte. Horren ondoren izan nahi nuke marrazkilaria. Baina horretan ere traketsa naiz. Azkenean,

### “Ipuin liburua transbordo asko dituen bidaia da, baina tarte horietan gertatzen dira gauza interesgarriak”

idazle izaten bukatzen duzu. Gero, *a posteriori*, inbentatzen duzu zergatik bihurtu zaren idazle. Baina, azkenean, igual gezurra da dena. Estiloarekin gauza bera gertatzen da. Beharbada, gustatuko litzaidake Carverrek bezala idaztea, baina saiatu eta ez zait atera eta, azkenean, idazten dut ahal dudana bezala. Gero asmatzen ditut esplika-

zio guztiak horri deitzeko nire estilo pertsonala. Baina hori da gabezia, eliminazio edo ezintasun askoren ondoren geratzen zaizuna. Eta, garai batean, beti idazten nuen musikarekin, eta konturatzen nintzen horrek eragina zuela idazten nituen gauzetan. Esperimentuak egiten nituen neure buruarekin.

—**Ipuinak asko landu dituzu, merezi duten**

**tokia betetzen dute gizarteak?**

—Esango nuke ezetz. Niretzako genero kuttuna dira, argi eta garbi. Gainera, badirudi gaur egun ipuina egokia litzatekeela, denborarik ez dugula esaten dugu eta. Baina genero humanoak kontserbadorea da eta gauza bat hartzen duenean, ez du utzi nahi, gustuko du eta ez du soltatu nahi. Nobelan gauza bera gertatzen da, pertsonaia eta giroarekin behin egokitu eta gustuko dituzunean, jendeak nahi du nobelak ahalik eta orri gehien izan ditzan. Ipuinetan, aldioro behartzen dituzu irakurleak stop egin eta zerotik hastera; hori gogorra da eta jendea irritatu egiten da. Idazleak arriskatu egin behar du, bere izaerarekin borrokatu behar du, bera ere kontserbadorea da eta. Errazagoa da eroso zauden lekuan segitzea. Bere buruari kontra egin eta irakurlea behartu behar du ipuina

bereizten idazketatik, oso antzeko ariketak dira niretzat. Irakurketa da idazteko ariketaren beste aldea. Nik pasa nitzake sei hilabete ezer idatzi barik, baldin eta irakurtzen badut, sentitzen dudalako ariketa beraren barruan nagoela. Irakurri gabe, nekez egingo nuke, urtikaria sortuko litzaidake.

—**Zure hitz batzuk gogoratuz, literaturak Jaurlaritzara eramane zaitu?**

—(Barreak). Horrelako leku estrainoetara esan nuen, ezta? Espero gabeko lekuetara. Bai, hori da nik istripu esaten niona. Etortzen den bezala hartu, eskerrak eman eta gero ahaztu egin behar dira sariak eta... Jaurlaritza aipatzen duzu eta jadanik, eztula etortzen zait... Bai, egia da ezusteko tokietara eramaten zaituela idazketak.

—**Galdetu dizut iaz ika-mika sortu zelako Euskadi Sarietan, eta zuk horrelako bat eskuratu zenuen 2005ean.**

—Horren harira esan nuen horrelako polemikak merezi zuela sari hobea. Hau da, polemikaren dimentsioa sariarenarekin alderatuz gero, askoz sari handiagoa merezi zuten, ez 12.000 eurokoa, baizik eta 120.000 eurokoa, gutxienez.

—**Icebergaren metafora ei duzu gustuko. Zer dio eta zerikusirik ba al du zurekin?**

—Hemingwayk esaten zuela uste dut.

### “Icebergaren metaforak dio puntak azpian dagoena iradokitzen duela baina iruzurti askoren ezkutalekua ere bada”

Idazten denean, bakarrik utzi behar dela agerian icebergaren punta, horrekin irudikatu behar zutela azpian dagoen guztia. Metafora arrisksua da eta orain jende guztiak erabiltzen du, minimalismoa eta... Carverren imitazioa asko sortu dira, esaldi

laburrak, gutxi esan eta gutxi kontatzen dutenak. Baina, noski, horrek ez du ziurtatzen istorio bat ona izango denik. Icebergarekin askotan tranpa egiten da. Askotan icebergaren punta esaten zaio eta benetan flotatzen dabilen izotz koxkorra da. Eta ez da gauza bera. Askok esaten du, Carverrek bezala, izotz punta direla, iradokitzen dutela. Gero, ordea, irakurri eta ezer ez dizu iradokitzen.

Minimalista izateak ez dizu ziurtatzen idazle ona izatea. Kontua da minimalismo horretan aukeratu behar duzula zer kontatu eta zer ez; hor dago artea. Hori oso zaila da eta gutxi egiten du ondo. Beraz, metafora hori iruzurti askoren ezkutalekua ere bada. ○

aldizkaria **etxean**  
jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali


Izena.....Deiturak.....  
Kalea & zenb.....Herria.....  
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero  20 euro  30 euro  50 euro  beste kopuru bat ..... euro  
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37





# Trinitarioak

XIX. mendearen bukaeran ailegatu ziren hirukoiztarrak edo trinitarioak Algortara. Luzaroan abade izateko eskola, hau da, seminarioa izan zen. Ehunka haur pasatu ziren handik. Gaur egun apostolatuaz gain Argia fundazioaren ardura ere badaukate trinitarioek.

Erakunde honek gaixotasun mentalentzako eguneko ospitalea kudeatzen du. Prozesioak, Lourdesko haitzuloaren bedeinkapena, 1926an elizak sua hartu zueneko... Azken ehun urte hauetako Algortako trinitarioen irudiak ekarri ditugu orrialdeotara.

Argazkiak: **Getxoko Udal Liburutegia**















I

# Iñaki Bixitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45  
Telletxe 1 T: 460 27 41

## Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

# Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

# GAVRKO

GIZONENTZAKO  
MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T: 4607084

# María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobbarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

## Euskal zinemaren adaxkak

### Euskal film laburrak zabaltzeko Kimuak programak arrakastaz amaitu du 10. ekitaldia



Taxi pelikulako fotograma bat

**Orain dela egun** batzuk itxi zen Kimuak programan parte hartzeko lanak aurkezteko epea, hilaren 24an. Oraindik ez dakigu irailtik aurrera Kimuak programak nazioarteko jaialdietan-eta erakutsiko dituen 7-8 euskal film laburrak zeintzuk izango diren, Donostiako Zinemaldian aurkeztuko dituzte eta, baina aurtengo Kimuak 2007-koen arrakasta ikusita, espero dugu datozen ere ibilbide oparoa izatea.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak sortu eta Euskadiko Filmategiak kudeatzen duen Kimuak programaren helburua euskal film laburrak Euskal Herrian eta nazioartean aurkeztea eta zabaltzea da. Kimuak 2007 izan da iragan irailtik oraintsu arte helburu hori betetzeko ardura izan duena eta beragaz 10 urte bete ditu programak. Aurreko ekitaldietan 7 film aukeratzen ziren zine zirkuituan zabaltzeko; iaz aurkeztutako 43 lanetatik, haien kalitate ona zela eta, zortzi aukeratu zituzten, ondorengoak: *Decir adios* (Victor Iriarte), *Hezurbeltzak, una fosa comun* (Izibene Oñederra), *Columba Palumbus (Uso basatia)* (Koldo Almandoz), *Las horas muertas*

(Haritz Zubillaga), *Limoncello* (J. Dorado, L. Berdejo eta Borja Cobeaga), *No es una buena idea* (Ugo Sanz), *Taxi* (Telmo Esnal), eta *Traumalogia* (D. Sanchez Arevalo).

Horietako batzuk orain dela gutxi ospatu den Getxoko *Gaurik Laburrena* jaialdian ikusi ahal izan genituen. Bada ez dakienak jakin beza Kimuak 2007ko film laburrak 500 zine jaialdi baino gehiagorako aukeratu dituztela eta guztira 82 sari irabazi dituztela. Sari gehien lortu dituenak

### «Kimuak 2007ko zortzi film laburrek 80tik gora sari jaso dituzte; horietatik 20 nazioartean»

Oñederraren *Hezurbeltzak* izan da, esaterako Stuttgart (Alemania), Brooklyn (AEB), Mexiko, Zagreb (Kroazia) eta Animadriid jaialdietakoak; aipatzekoak dira Almandozek Kolonbian jasotakoa, Victor Iriartek Uruguain, Haritz Zubillagak eta Ugo Sanzek Italian, J. Dorado, L. Berdejo eta B. Cobeagak Alemanian... Bestalde jaialdietarako aukeratuena Esnalena eta D. Sanchez Aravalorena izan dira. ○

## Ska-reggae jaialdia Erromon

### Abuztuaren 2an 30 musikaritik gora, 6 ordu baino gehiagoko iraupena; aurten ska nagusi!



The New York Ska-Jazz Ensemble taldekoak

**Apurka-apurka** urteen poderioz eta jarraitutako irizpide onengatik hazten joan eta egonkortu den ekimena da Erromoko jaien barruan antolatzen den Ska-reggae jaialdia. Jai Batzordeak Brixton musika dendako Xabiren laguntzagaz prestatzen duen jaialdiak XI. ekitaldia beteko du aurten abuztuaren 2an (21:30; Txosnagunean). Brixtoneko Xabik azaldu duenez, taldeak aukeratzeko irizpideen artean hauek daude: taldeak ez errepikatzea eta taldearen erakargarritasuna eta kalitatea kontuan hartzea. *“Errono jaialdia berezia da, herrikoa delako, kalitatekoa, doakoa eta datozen taldeak ez dira ohikoak izaten, ez dira areto komert-*

*zialetan jotzen dutenak”*, dio Xabik. Jai Batzordeak eskatuta, aurtengo jaialdian roots baino ska doinuak gehiago entzungo direla adierazi du Brixtonekoak.

Hala, Garagardo Gura taldeak (Gasteiz) bertoko eta euskarazko doinua emango dio jaialdiari, The Gramophone Allstars (Katalunia) taldeak euren lehen diskoako ska eta jazz aurkeztuko digu, Jim Murple Memorial taldeak (Frantzia) emakumezko ahotsez 50eko ska eta R&B jamaikarra hurbilduko digu eta, azkenik, aspalditik jaialdira ekarri gura zuten nazioarteko entzute handiko The New York Ska-Jazz Ensemble-n (AEB) disko berriaz gozatu ahalko dugu. ○

## diskoak

**Music mass ...**  
3.000 Hombres  
Gaztelupeko Hotsak




Jazz, blues, soul, funk, reggae, swing, rithm'n'blues... oro har afroamerikar musika ardatz duen Madrileko taldearen laugarren lana da *Music mass construction* (Live at Bogui Jazz); 2007ko martxoan Madrileko Bogui Jazz aretoan zuzenean grabatua, eta azken urteotako atzera begirakoa egiten duena.

**Viva la vida or Death...**  
Coldplay  
Parlophone, Capitol



Talde britainarraren laugarren lana da iragan hilean kaleratutako *Viva la vida or Death* and *All His Friends*. Diskoaren izena taldearen bi kanturen batuketatik ondorioztatzen da. Lana hamar kortek osatzen dute, baina esan daiteke 13 abesti dauzkala lan berri honek. Datorren irailaren 6an Bartzelonan eskainiko dute kontzertua.

**Cosita buena**  
Orishas  
EMI



Roldan Gonzalez, Hiram Riveri "Ruzo" eta Yotuel Romero hirukote kubatarren estudioko laugarren diskoa da *Cosita Buena*. Hamabi abestik eta Tenerifeko Santa Cruz inauterietarako sortutako *Hip Hop Conga* kantu gehigarriak osatzen dute lan berria, ohi legez, son kubatarra eta hip hop estilen nahasketa berezian.

## diskoa labean >

### Benitoren beste bat



Aurrerapena baino ez da, baina zurrera era berean. Orikoak disko berria kaleratuko du laster, uda ostean edota udazkenean; iturri batzuek diotenez,

diskoaren aurkezpena urriaren 16an egingo ei da. Oraintsu berori prestatzen dabil Benito eta lan berrirako izenburua ere erabakita ei dauka; azken orduko aldaketarik ez bada, hurrengo izango da: *Itsas ulu zolia*. Diskoaren azalerako Karmelo Bilbao Unanue marrazkilari bizkaitarraren itsas giroko margolan bat aukeratu dute. Informazio gehiagorako udazkenean arte itxaron beharko dugu.

## jaialdia >

### Azkena Rock

Oraindik goiz bada ere... Hurrengo UKn (irailean) iragartzeko aukerarik edukiko ez dugunez, dagoeneko Azkena Rock jaialdi interesgarriaren berri ematea erabaki dugu. Gasteizen antolatzen den jaialdia irailaren 4, 5 eta 6an egingo da aurten eta daborduko sarrerak salgai daude. Bertan kontzertua eskainiko duten taldeak (azken orduko aldaketarik ez bada) hurrengoak dira, besteak beste: Blues Explosion, The Gutter Twins, Blind Melon, The Sonics, Los Lobos, Blue Cheer, John Cale & Band, Ray Davis, Danko Jones, Hanoi Rocks, Marky Ramone, Sorkun, Las Culebras, Duff McKagan's Loaded, Donita Sparks, Orange Goblin etab.

Informazio gehiago:  
[www.azkenarockfestival.com](http://www.azkenarockfestival.com)



Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Etxera  
eroaten dizugu  
gasoleoa

Txartel hau aurkezten  
baduzu 3 euroko  
deskontua edukiko duzu  
zure eskarian

Getxo eta Berango artean  
Tel: 94 430 15 00

etorri  
eta  
ikusii!

**ORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

**BASALBO BASERRIA**

**JATETXEA**

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

## Bizkaiko uriburu euskalduna

Pedro eta Aitor **Zuberogoitia anaiek** osatu dute **Bertan Bilbo** historia eta istorio liburua

**Uda, oporrak...** bidaiari mota asko daude, urrun ala hurbil, batzuek oporraldia hondartzetan gorringo-haretan legez pasatzen dute; beste batzuek urrutiko hiriberriak ezagutzeko grina daukate, hango museo, arkitektura, herritarrak eta historiaren berri izatea. Ostera, gaurko proposamena ez da ez bata ez bestea; hurbileko leku bat da, eta "ezezaguna" izan dakiguen historia ezagutzeko aukera emango digu.

Azken aldian turistentzat hain erakargarri bihurtu den hiriburua, Bilbo da topagunea, eta Bilboren eta euskararen arteko XX. mendeko maitemintze ezkuuagaz gozatzea da gonbidapena. Horretarako Pedro eta Aitor Zuberogoitia orain dela ez asko pla-

**«Bilboren balizko erdaltzaletasuna zalantzan ipintzen dituzten datuak bildu dituzte»**

zaratu duten *Bertan Bilbo*. Bizkaiko hiriburua eta eta euskara: XX. mendeko historia liburua hartuko dugu gidari. Egileek azaldu dutenez, "hiriburuaren eta euskararen historia sozial txikiari egindako hurbilketa deskriptiboa da" eta hiriburuaren balizko edota esterotipatutako erdaltzaletasuna zalantzan ipintzen dituzten datu, elkarrizketa, gertaera eta irudiak bildu dituzte *Bertan Bilbo* liburua 300 orrialde baino gehiagotan. Aitor Zu-



Argazkian, Zuberogoitiarrak

berogoitiak Jakin aldizkarirako Xabier Gereño idazle eta kultur-eragile bilbotarrari egindako elkarrizketa batean sortu zen liburua ideia eta Bilboko Udaleko Euskara Sailaren laguntzagaz, 3 urteko lanaren ostean argitaratu dute lana. Luze joango litzateke 300 orrialdekoa laburbiltzea, baina liburuan aurki daitezkeen kontuen lagin txikitxoak dira hurrengo zertzeladak: Sabino Arana, R.M. Azkue, Unamuno; *Euzkalzale*, *Ibaizabal*, *Euzko-Deya*, *Euzkadi*, *Hermes* eta *Anaitasuna* aldizkariak; gerra osteko lehenengo ikastola eta bertso-saiok; Euskal Herriko lehenengo euskarazko antzerki talde profesionala (Kriseilu); Euskaltzaindia; G. Aresti; gau-eskola eta euskaltegiak; Pott Banda; Santutxuko bertsolari lantegia; gaurko herri aldizkariak; Euskaltzaindia... ○

liburuak



**Euskal Literaturaren historia**  
Iñaki Aldekoa  
Erein

Poltsiko.e sailaren barruan aurkeztu du Erein argitaletxeak 2004an Iñaki Aldekoak gaztelaniaz argitaratutako liburua euskarazko bertsoia, Jon Muñozek itzuli duena. Euskal literaturaren historiako lan mugariak eta garaiko pentsamolde eta korronteak biltzen ditu.



**Esperantza**  
Andre Malraux  
Alberdania / Elkar

Andre Malraux (Paris, 1901-Creteil, 1976) idazle, abenturazale eta politikari frantsesa Espainiara abiatu zen 1936ko gerrarako hastapenetan eta, diotenez, ia lubakitik bertatik idatzita dago lan hau, Errepublikaren aldeko erabateko konpromisoagaz.

[kirola]

## Txapeldunak, bikotea Getxora!

Liga txapelketa eta **Erregina Kopa** irabazi ditu aurten **Getxo Errugbi taldeak**



Getxo Errugbi talde txapelduna Erregina Kopan

**Adjektibo** kontua baino gehiago da; gizonen taldea izan balitz... Ostera, aurten puntako taldea andrazkoena izan denez... Eskerrak norbaitek euren marka txalotzea ebatzi eta Algortako jaien txupina botatzea eskatu dien.

Getxo Errugbi senior taldeko kapitainak, Silvia Ruiz eta Maitane Mendiguren, denboraldi bikainaren gainean berbetan egon gara, zorionak eman ostean. "Denboraldia nahiko progresiboa izan da; Santi Duranegaz batera entrenatzaile berria izan dugu, Nerea Martinez jokalaririk ohia; eta oso ondo moldatu gara. Aspalditik elkar ezagutzen genuen taldea gara, baina orain dela bi urtetik neska "txikiak" ere geugaz entrenatzen dira eta apurka taldea osatzen joan da. Nire ustez, aurten eman da nagusien eta gaztetxoagoen nahasketa polita. Denboraldian zehar hobeto jokatzeko joan gara, jokalarion hartu-eman zelaian primerakoa izan da; hala, liga ederra egin dugu!", adierazi dute. Orain dela 7 urte legez, Ligako txapelburuan, Erreginaren Kopa ere Getxora ekarri dute. "Prestakuntza gogorra egin dugu, gizonen taldekoen laguntza eduki dugu eta nabaritu da. Lehenengo fasea probatzera joan ginen;

finalaurrekoak Gaztediren kontra, elkar ondo ezagutzen dugunez errazagoa izan zen, halere gogorra! Beti gabiltzalako lehian. Finalera heltzea ezustekoa izan zen; Bartzelonako Ines taldearen aurka izan zen: azkeneko 3 urtetan Kopako garaile izandakoak eta taldekideen erdia selekzioan dituen (gure taldeko batzuek ere jokatzeko dute bertan)... Baina eguraldia ere lagun izan genuen, gu ohituago gaudelako euriagaz eta

**«Jende gutxi hurbiltzen da andrazkoen errugbira eta jokalariek behar ditugu»**

zelaia igerilekua balitz legez jokatzera. Gogorra izan zen, baina esfortzu handia eginda irabazi genuen", gogoratu dute. Hurrengo urteari begira, "marka berdintzen badugu primeran, baina espero duguna da ondo jokatzeko jarraitzea", diote. Alabaina, jokalaririk falta dela eta emakumezkoak errugbian jokatzera animatu gura dituzte: "Getxon kirol ezaguna da errugbia, gizonen taldeagatik, euren da ospea; jende gutxi hurbiltzen da andrazkoen errugbia ezagutzera, eta jokalariren beharra dugu". Batzuek ospea, besteek lana; aurten langileak garaile! ○

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa  
Kirol moda



**350** M<sup>2</sup>  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacofris.s.l.** SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



**Rami, Ayman eta Hana** > Palestinako umeen begiraleak

“Gure herriko kulturgunean ekimenak egiten ditugu, umeen kezkak leundu asmoz”



Hiru begiraleak haurrekin, Sopolako Ander Deuna ikastolan

**Uztaila Sopolan igaro dute Zisjordaniako (Palestina) hemeretzi umek. Nablus hirian dagoen Balata errefuxiatuen kanpamentutik heldu dira, bestelako kultura eta bizimoduak ezagutzeko. Eurekaz batera iritsi dira Rami Jarim, Ayman Hashash eta Hana Khayyat begiraleak. Unai Mendoza Nuyum elkarteko kideak egin digu itzultzaile lana.**

—Nolatan etorri zarete Sopolara?

—Biladi elkarteak gonbidatu gintuen eta hemeretzi ume ekarri ditugu, Euskal Herria eta euskal kultura ezagutzeko. Pozik gaude hemen gaudelako. Halere, Israeliek ez dio etortzen utzi neskato bati, ama Gazakoa delako eta, beraz, ez gaude alai bere osotasunean.

—Bertako umeakaz egoten dira goizetan, Ander Deuna ikastolan. Zelan konpontzen dira elkarregaz?

—Hainbat ekintza egiten dute elkarregaz, jolasak, tailerrak eta dantzak, adibidez.

—Palestina zelako egoera bizi dute egunerokotasunean?

—Gehienak egoera latzean bizi dira, senideren

bat dute kartzelan edo hilda. Espazio arazoak direla eta, ezin dute parte hartu lehenengo mundua deritzen herrialdeetako umeek parte hartzen duten jolasetan eta, espazio arazo horren ondorioz, liskarrak ere sortzen dira euren artean. Bertakoon bizimodua ez bezalakoa da.

—Kanpamentuko kulturgunean lan egiten duzue umeokaz.

—Bai, hainbat kultura ekintza burutzen dugu umeakaz, euren kezkak leuntzen saiatzen gara. Guneok garrantzitsuak dira. Saiatzen gabilta Sopolakoa bezalako udalekuak antolatzen, baina laguntza behar dugu, baliabide eskasak ditugu eta.

—Bertako umeek ezagutzen al dute Pales-

tinatik etorri direnek bizi duten egoera?

—Bai, elkarrekin hitz egin dute Palestina zein Euskal Herriko egoerez. Agurraren egunean parrillada bat egin genuen eta elkarri laguntasuna eskaini zioten, giraladak jarri zituzten...

—Nazioartean ematen du Palestinan lasaigoa dela egoera gaur egun; horrela al da?

—Ez, okupazioak oraindik darrai, israeldarrak egunero sartzen dira gure kanpamentuetara, palestinarrak hiltzen dituzte, gure etxe-

**«Hau egiten dugu gure umeek bestelako etorkizuna eduki dezaten»**

etan sartzen dira. Umeek ezin dute lasaitasunez lo egin eta hemen hegazkinen bat ikusten dutenean beldurtu egiten dira. Gazan, gainera, egoera are larriagoa da eta harresia gura duten moduan erabiltzen dute. Egoera, beraz, ez da horrenbeste hobetu.

—Hortaz, etorkizunari begira, zer espero duzue?

—Poztasuna bilatu behar dugu eta epe laburrera begira, gauzak positiboki ikusten saiatzen gara. Gauza ederrak gure egiten saiatu behar dugu. Horregatik gabilta hainbat jende, herrialde eta gatazka ezagutzen, gu geu kulturizatzeko eta kanpoko lagunak gure herrira etorrazten saiatzeko, gure borroka ezagut dezaten. Hori dena egiten dugu gure umeek bestelako etorkizuna eduki dezaten, beste herrialde batzuk ere badaudela ikus dezaten. Besteengandik zerbait ikasita, gure gatazkari begira zerbait positiboa lor genezake.

—Gatazka bukatuko al da?

—Munduko edozein gatazkak bukaera du eta edozein herrialdek lortzen du askatasuna borrokaren bitartez. Ez dugu ulertzen munduak gu terroristatzat ikustea, gure askatasuna lortu gura dugulako. Israeldarrak ez dituzte horrela hartzen. Askatasuna lortuko dugu, horretarako lanean gabilta eta. ○

# “Getxo, akordaten naz”

Herriko euskaldun zaharren testigantzak, oroitzapenak eta euskara jasotzen dituen dokumentalaren...

**...kopia bat eskuratu...**

*...nahi baduzu  
“uk@aldizkaria.biz”  
helbidera mail bat  
idatzi.*

*10 ale dauzkagu  
UK-ko harpidedunen  
arteak banatzeko*



**akabuko  
aleak!!!**



Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 Algorta GETXO  
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tet: 94 491 13 37



**PIXKA.BAT  
ES.MUCHO**



**UKAN RECORDS**

Hartu doan  
**pixkabatesmucho.com**  
webgunetik.

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

ELIZABIA BALIA  
KULTURAREN FORTAZKUNTZA

## Izan solidario, izan GETXOPHOTO



GETXOPHOTO 2007an parte hartu zuten argazkilarik ospetsuek kalean ipini zituzten irudiak poltsa, amantal, zorro eta mahai-oihaltxo bihurtu ditugu, artikulua original bakarrak sortuz. Behar hau lan merkatuan sartzeko zailtasunak dauzkaten pertsonen birziklatu dituzte Ecolinea enpresaren bitartez. Irabaziak ATFAL Getxo Pro-Sahara elkartearen emango zaizkio.

**GETXOPHOTO 2008 irailaren 11tik urriaren 12ra**  
+info: [www.getxophoto.com](http://www.getxophoto.com)

**GETXO  
PHOTO**

**Non eskura daitezke  
artikulu hauek?**

House Dream  
Algortako Etorbidea 88  
Algorta (Getxo)



## El Sol garagardotegia

Zeliakoentzako aukera aproposa



El Sol garagardotegiko lagunak

**Hiru belaunaldik** egiten dute lan Unbe bideko errepidean dagoen El Sol garagardotegian. Benito Manceras Morenosen jarri zuen martxan 1975. urteko abuztuaren eta guztion artean atera dute aurrera. Gaur egun, Jon Manceras eta Maria Angeles Manceras dira honen arduradunak, nahiz eta senide guztiek laguntzen duten. Maiatzean zabaldu eta urrian ixten dituzte El Sol-ek; udako eguzkiaren berotasunean edo gau epelen gozotasunean bazkaltzeko edo afaltzeko leku aparta da.

Edozein garagardotegitan aurki dezakegun eskaintza daukate: oilaskoa, piper berdeak, odolkoa, entsaladak, kroketak... Dena etxeko kalitatezko produktuekin egiten dute: "Entsaladetarako osagaiak Getxo eta Maruriko ortuetatik hartzen ditugu". Baina

gainontzeko garagardotegietatik desberdintzen dituen ezaugarri bat daukate: zeliakoentzako egokituta dago euren eskaintza. Orain dela urte batzuk hasi ziren hau lantzen eta aurten dena egokitzea lortu dute: "Kroketak izan ezik, eskaintzen ditugun plater guztiak jan ditzakete. Frijiontzia independenteak ditugu eta ketchup, maionesa eta azken buruko guztiak zeliakoentzako bereziki erositakoak dira". Horrek jende asko erakartzen du; izan ere, zeliakoek zaila izaten dute eurentzako aproposak diren jatetxeak topatzeko: "Ez dugu inolako publizitate berezirik egin, baina ahoz ahokoak ondo funtzionatu du". Asteko egun guztietan zabaltzen dute. ○

**Gatzarriñe 56, SOPELA**  
Tel.: 94 676 13 65

**KONTXI**  
**ZUAZUBISKAR**

**URDAITEGIXA**

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,  
Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93

**G** gOZOLABEA

**galdaretxe**

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25  
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29  
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58  
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14  
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

**ARTAZA ETXEA**  
jatetxea  
• gozariak  
• txuletoia • makailua  
• arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92  
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

**JUAN-MARI**



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

**AREETA**

**Asador  
Goieztzi**



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak normberaren gustura
  - Eguneroko karta berezia
  - Gazez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
  - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

**Aretxondo 14**  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93





prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

## BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)  
T:94 430 69 42 /ALGORTA

## GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"  
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

# Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g,  
Algorta

\*Telf. erreserbak: 94 460 64 13

## [horoskopoa]

### URA



**(Abenduak 21 - urtarrilak 19)**  
Buruko minaz bazabiltza eta lasaiago geratu gura baduzu, medikuarengana joan beharko zenuke. Autoa zer moduz dabil, Ura? Lantzean behin, zelan dabilen ikusteko, azterketa sakon eta orokorra egin behar zaiola gogoratu.

### AITZURRA



**(Martxoak 21 apirilak 19)**  
Bizitza profesionalan izugarriko aurrerapausua emango duzu eta horrek egonkortasuna sortuko du zure inguruan. Txikitako beldurrak barru barruan dituzu oraindik. Ordua da horiek gainditu eta zure benetako izatera garatzen hasteko.

### GARIA



**(Ekainak 19 - uztailak 18)**  
Batzuetan hobe da isiltzea eta arrazoiarekin ematea, baina zuk ez dakizu ez bata, ez bestea egiten. Aterki txiki horregaz ez duzu lortuko euriarik babestea, eta blai eginda loruko zara.

### META



**(Irailak 17 - urriak 16)**  
Aspertuta zaudela askotan esaten duzu, baina egoera hori konpontzeko ez duzu ezer egiten. Denetan azkarrena zarela sarri erakutsi duzu, baina azkarrena izateak ez du esan gura adimentsuena izatea.

### OTSOA



**(Urtarrilak 20 - otsailak 18)**  
Baina zertan ibili zara daukazun itxura xeble horrekin? Ez zarela gogoratzen? Orduan primeran pasatuko zenuen, ziur. Behin eta berriro egiten duzu gauza bera: besteen lepotik barre egin, eta zeure burua babestu.

### HOSTOA



**(Apirilak 20 maiatzak 19)**  
Inoiz baino indartsuago zaudete. Zeure buruarekiko erakusten duzun konfiantza horrek asko lagunduko zaitu, batez ere zure familian egon daitezkeen gorabehera ezberdinei begira. Izan ere, zeu izango zara oinarriko euskarrietako bat.

### LASTOA



**(Uztailak 19 - abuztuak 17)**  
Osasuna eta dirua zeure alde dituzu, baina ez, ordea, lagunak. Badakizu zure umorea eguraldia bezain aldakorra dela, eta liskar bat baino gehiago izan dezakezu umorearen kontura.

### HAZIA



**(Urriak 17 - azaroak 15)**  
Azkenaldian bikote kideagaz denbora asko igarotzen duzu, eta hori oso ondo dago, baina lagunak ez ahaztu. Beharrezko zabilteaz kontu handiagoa izan beharko zenuke, gero ezusteko txarrik izan ez dezazun.

### ADARRA



**(Otsailak 19 - martxoak 20)**  
Edukitzen dituzun gastuak gutxitu egin behar dituzula? Parranda guriago egin, eta ederto gutxituko zaizkizu. Amets ugari egiten dituzu gauean, baina goizean, esnatzerakoan, egunerokotasuna nagusitzen da.

### EGUZKIA



**(Maiatzak 20 ekainak 18)**  
Arazoei behar baino garrantzi handiagoa ematen badiezu, azkenean zoratu egingo zara. Gaur egungo teknologia berriak ez zara oso ondo moldatzen; baina lasai, denboragaz eta pazientziagaz dena ikasten da.

### IRATZEA



**(Abuztuak 18 irailak 16)**  
Urrun daukazun familiako kideagaz askotan gogoratzen zara. Zergatik ez diozu noizean behin idazten? Ondo etorriko zaizu, eta berak biziki eskertuko dizu. Mendira sarriago joaten hasi beharko zenuke.


### NEGUA



**(Azaroak 16 - abenduak 20)**  
Azken boladan triste eta goibel zabilte. Baina aspaldian ikusi ez duzun lagun baten bisitak asko poztuko zaitu. Berarekin ahaztuta dituzun tokiak eta pertsonak berrikusteko aukera izango duzu.




**GORLIZ IRRATIA**  
Uribe Kosta Irratia 107.8 FM  
www.gorlizirratia.com





denborapasa

## HITZ GURUTZATUAK



## LUMA aldizkariaren eskutik

### Ezker eskuin

1. Ontziola. 2. Lore-baratzeak. 3. Ipar., pindar, txinpart. Bizkaieraz, zama. Bokala. 4. Banako baten garapen, enbrioia den bitartean. 5. Nauka. Denbora-tarte. Kanpo. 6. Asiako hego-ekialdeko estatua. 7. Zimikoaren hasiera. Norat atzizkia. Alkoholen bukaera. 8. Euskal bandera. Bokala. 9. Aho, kontsonanterik gabe. Gipuzkoako herria. Zoru. 10. Itsas mapa. Ogi.

### Goitik behera

1. Olioia edukitzeko ontziak. 2. Nonahikoa. 3. Erabiltzeko era. Bokala. Kontsonantea. 4. Baxenabarreko herria, Garazin. Irrati hitz elkartzeetan. 5. Idi, hitz elkartzeetan. Gelako zerbitzaria. 6. Zentzumenez kanpoko komunikazioa. 7. Egongo. Kontsonantea. Kontsonantea. 8. Ekialdean, gara. Joan dadila. 9. Kasik. Alor. Oinarrizko edari. 10. Garbizaleen kafea. Jardun.

### Soluzioak

I	H	V	G	V	T	H	V	K	A
H	U	L	V	I	V	O	V		
V		V	N	I	R	U	K	I	
T	O		T	V	R		I	Z	
V	I	D	N	V	L	V	H	T	
T		E	P	E	K	N	A	K	
I	S	E	N	E	O	N	O		
E		H	O	R	L	O	R	I	
L	O	R	A	T	E	G	I	A	K
V		I	T	E	Z	I	T	E	O

## asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



### Nor da?

- Hendaian jaioa, 24 urte
- Bertsolaria
- Algortan egon da orain dela gutxi

> Aurrekoaren erantzuna: Jorge Oteiza  
> Irabazlea: **Uxune Iriondo (Getxo)** \*

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz

•Argia astekariaren biru bilabeteko harpidetza doan



•Freexkue liburua

www.argia.com



gure posta elektronikoa

**uk@aldizkaria.biz**

UK Uribe Kostako Aldizkaria



J. MANUEL AMUTIO "TOLETE"K UTZITAKO ARGAZKIA

Goian: J.Manuel Amutio "Tolete".

Zutunik: Armando Amutio (GB), Serafin Galin (GB), Pedro M<sup>a</sup> Royo "Navarrito".

Makurturik: Valero (GB), Jose Bengoetxea "Perrete" (GB).

Bittor Egurrola

## Azkorriko landetan, 1946

**Hona hemen** Portu Zaharreko seikote bat Getxoko Azkorriin, gizadorrea edo antzekoren bat egiten; hori bai, trebeena goian jari zen esperimentua pikutara joan ez zedin. Udaldia, eguraldia ederra eta umorea hobea. Beraiek ongi pasatzen ari ziren lagunarteko beste batzuk bazkariar arduratzen ziren bitartean. Guztiak zuriz jantzita agertzen dira bat izan barik. Horri, zikin ez zitezen, amak ez zion praka zuririk janzteko baimenik eman.

Argazkia Paella Txapelketako hasierako urteren batekoa omen dela esan digute baina data hau ez dator bat paelletako kronologia ofizialarekin, izan ere, ofizialki behintzat, hamar urte beranduago hasi zen Paella Txapelketa Azkorriin, 1956an eta bertan jarraitu 1967ra arte. Hurrengo urtean, 1968an Aixerrorara aldatu zen eta hor jarraitzen da ospatzen gaur egun ere.

Argazkikoak Chunga taldekoak ziren, erromeriaz erromeria giroa alaitzen ibiltzen zirenak (UK 129). Argazki honetan ere primeran ari direla bistan da. o



**SUSTRAI COLINA** > bertsolaria

# “Konturatzen ari naiz barkatzen ikasi dudala edo ikasten nabilela”

Testua: **Zuberoa Iturburu** Argazkia: **Asier Mentxaka**



## Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Sinesten duen gauzetan buru-belarri saiatzen den norbait.

## Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ez dakit... ez dut sentitu sekula horrelako bekaitzik protagonistarekiko. Hunkitu nauten filmetan, protagonistek hunkitu naute beraien historiagatik eta ez historiak bekaitza eman didalako.

## Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Asko. *Che* Guevara, adibidez eta, gerturago etorrita, Txomin Iturbe. Fikziozko beste batzuk ere bai, *Xabinaitor*, esaterako. Horien nahasketa bat izango litzateke.

## Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzazuke jardutea?

Aspaldian futbolaria edo pelotaria izatea gustuko nukeen, baina orain, guztiei ikusten diet trabaren bat. Nik kudea dezakedan zerbaitetan, ez besteen esku egongo nintzatekeen zerbaitetan.

## Ohitura txarren bat?

Autoa gidatzean segurtasun uhala beti lotzen dut etxetik atera eta hirurehun bat metrora.

## Zer ez zenuke sekula barkatuko?

Traizioa, baina konturatzen ari naiz barkatzen ikasi dudala edo ikasten nabilela. Behin puñala sartuz gero, kostatzen zait ahaztea, baina denborak, batzuetan, gauzak konpontzen ditu.

## Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Denak, bai. Ez dut inoiz gaizki pasa, denei bilatu diet enkanturen bat.

## Irakurri duzun azken liburua?

*Soy todo lo que me pasa*, Fito Cabrales musikariaren biografia.

## Ikusi duzun azken filma?

Atzo bertan ikusi nuen *Amelie* DVDan.

## Zein da zure ametsetako bat?

Topikoa ematen du, baina zoriontsu eta gustura bizitzen segitzea.

## Eguna ala gaua?

Bata bestearen ondoren ezin litezke? o

**LABURREAN**— Oraindik ez ditu 26 urte bete Susstrai Colinak, baina jadanik, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalista izan da 2001ean eta 2005ean. Miarritzen jaioa, Urruñan bizi da eta 1992an egin zuen lehen plaza Donostian, Gipuzkoako Eskolarteko txapelketan. 2000an irabazi zuen Ipar Euskal Herriko Bertsulari Gazteen txapela. Uztailaren 16an Algortako Bertso Saio Mundialeko artistetako bat izan zen eta aukera baliatu genuen galdera hauek egiteko.

I

# Iñaki Bixitegia

*Algortako eskumuturrekoa*



925 milarenetako zilarra

Eskumuturreko honek  
Algortako sinbolorik adierazgarrienak batzen ditu

*Aixerrota*  
*San Nikolas eliza*  
*Sardina-saltzaile eta arrantzalearen estatuak*  
*Udaletxea*  
*La Galeako gotorlekua*  
*Getxoko armarría*

AGENTZIA OFIZIALA



Villamonte plaza 3, T: 94 430 23 45 • Telletxe 1, T: 94 460 27 41  
informacion@joyeriainaki.es

*Algorta*